

HITZA



Hogei urte
goierritarrekin

OSTEGUNA,
2024KO URRIAREN 3A

GOIERRI

www.goierri.hitza.eus



GOIERRIKO HITZAK, pilatuta, inprimaketa prozesu betean. K. G. Z.

20 urte, euskaraz informatzen

GOIERRIKO HITZAK 20 urte beteko ditu larunbatean. 2004ko urriaren 5ean argitaratu zen lehen zenbakia eta, orduz geroztik, maiztasun handiagoarekin edo txikiagoarekin, paperean zein digitalean, Goierriko eta goierritarren gertakizunak dokumentatu eta zabaltu ditu, euskaraz, gizarte euskaldun eta informatua lortzeko. Ezinbesteko piezak izan dira harpideak, iragarleak eta administrazioa.



Zure barne logistikaren
automatizazioa

 smartlog

50

Mugitzen Gaituen Indarra

Iragana esker onez eta mirespenez beterik begiratzen dugu. Etorkizuna, ilusioz beterik.

50 urte beranduago, honaino ekarri gaituen indar hori, mugimendu hori, motibazio hori jarraitzen dugu izaten.

50 HINE
MUGITZEN GAITUEN INDARRA



Eta azken urteurrena bada?

GOIERRIKO HITZAK 20 urte egingo ditu. Urruti geltzen da 2004ko urriaren 5a, lehen alea atera zen egun hura; zenbat albiste, zenbat elkarrizketa, zenbat goierritar atera ote dira urteotan eskualdeko euskarazko egunkarian. Hizkuntzaren normalizazioan eragiteko eta informatuta egoteko eskubidea bermatzeko sortu zen, eta helburuak berak dira oraindik.

Erronka ez da makala. Azken bi hamarkadetan globalizazioak aurrera egin du, hizkuntza hegemonikoen mesedetan eta euskararen kaltetan. Gure hizkuntzarekiko oldarraldia goraldian da eta arduradun politikoak epelkeriatan dabilta. Gainera, garai berrietara eguneratzeko behar diren baliabideak eta indarra ere ez daukagu soberan.

Ezinbestekoa da irakurle izatetik harpidedun izatera jauzi egitea. Zure laguntza ezinbestekoa da proiektuari eusteko. Hitzakide digitala egiteak urtean 50 euroko kostua du, eta kenkariak ditu errenta aitortpenean. Era berean, esan, 20 urte bete baldin baditugu, harpidedunen babeseratik izan dela. Eskerririk asko, bihotzez.

Diruz laguntzen gaituzten udalen eta erakunde publikoren zein pribaturen eta iragarleren ekarpenik gabe ere ez ginateke honaino iritsiko. Garai berrietara eguneratzeko unea den honetan, apustua biderkatzeko momentua da. Gizarte informatu, kritikoa eta euskaldun bat nahi baldin badugu, orain erein behar dugu.

Lankide, irakurle, harpidedun, iragarle, administrazioa... denak batera arraun eginez gero, ziar urteurren gehiago ere ospatuko ditugula.

K. GARRALDA ZUBIMENDI
GOIERRIKO HITZAKO ZUZENDARIA

MIREN SUDUPE GOIKOETXEA
GOIERRIKO HITZAKO KUDEATZAILEA



Eskerrik asko Hitzakide guztiei, bihotzez

KERMAN GARRALDA ZUBIMENDI



Irailaren 27ko GOIERRIKO HITZA-ren alea. Kerman Garralda Zubimendi

GOIERRIKO HITZA honaino iritsi bada, proiektu hau era batera edo bestera babestu duten guztiengatik izan da. Aipamen berezia merezi dute harpide edo Hitzakideek. Beraien ekarpen ekonomikorik gabe, ezinezkoa litzateke gure lana aurrera eramatea. Zuek, harpide leialak, zarete proiektuaren bihotza, eta horregatik merezi duzue gure miresmen eta esker ona.

Esker berezia bidali nahi dizuegu harpide guztiei, baina bereziki, egunkari hau lehen unetik babesten aritu zaretenoi. Zuen leialtasuna eta konfiantza eskertzekoa da. Zuek gabe, GOIERRIKO HITZA ez litzateke gaur egun den bezalakoa izango. Hurbil zaudeten guztiek egiten duzue posible eguneroko jarduna eta, horregatik, bihotzez eskertzen dizuegu zuen babes eta elkarlana.

20 urte dira GOIERRIKO HITZA zuen etxeetara iristen hasi zenetik, informatuta egoteko oinarrizko eskubidea eskualdeko ikuspegiarekin eta bertako hizkuntzan, euskaraz, asebetetzeko. Urteak pasa dira, baina helburuak berdinak izaten jarraitzen dute, nahiz eta moldeak aldatu diren. Goierriko gizartea geroz eta digitalagoa eta trantsizio hori egiteko indarra eta motibazioa Hitzakideek ematen dute.

Egin zaitetz Hitzakide

GOIERRIKO HITZAREN edukiak kontsumitu baina Hitzakidea ez baldin bazara, proiektua babesteko eskatuko dizugu. Harpidetza digitala egin daiteke edo, paperekoa. Hitzakide digitalen prezioa 50 eurokoa da eta paperekoa, GOIERRIKO HITZA eta *Goiberri* barne, 100 eurokoa.

Hitzakide txartela izango duzu, prentsa eskaintza osoa PDF formatuan edota paperean irakurri ahal izango duzu, asteroko zozketatan parte hartzeko aukera izango duzu, eskaintzak eta deskontuak izango dituzu, albiste bereziak lehenago irakurtzeko aukera izango duzu eta, garrantzitsuena, proiektua indartzen lagunduko duzu.

Etorkizunean ere elkarrekin jarraitzea espero dugu, berrikuntzak eta hobekuntzak eginez, baina beti gure oinarrizko helburuari eutsiz: zuentzat eta zuekin lan egitea, euskaraz eta Goierriko ikuspegiarekin.

Jarraian, gure harpideei eman diegu hitza, elkar ezagutzeko. Paperezko zein harpidedun digitalak dira, Goierriko herri guztietakoak. Ezinezkoa da harpidedun guztiei tokia egitea, baina eskerrik beroena harpidedun bakoitzari. ■

Idiazabalgo Udala
 idiazabal.eus
 943 18 71 00

Instagram: @idiazabalgo_udala
 Facebook: Idiazabalgo Udala
 Twitter: @idiazabaludala

Oskarbi
 oinetakoak

www.zapatosobi.com

Ekonomia
Mikel Rodriguez
zumarragarra aditua
bilakatu da sagardoan

ZUMARRAGA, 6

GOIERRIKO GAZTEA

Olaberriko Aizpea gaztandegiarena da G...
Are, lehen hamar gazten artetik, zazpi esku...
Gipuzkoako gazta txapelketa Legazpiko Art...



Gaztagile sarituak eta omenduak; agintari eta antolatzaileekin batera, saribar

Ekhi Irribarriak 22 urtez azpiko bu buruko munduko txapela jantzi du

● Aramako pilotariak 22 urtez
azpikoen munduko txapelketa
irabazi du, Iruñean. Finala
«gogorra» izan zela deskribatu du.

● Ez da munduko txapelarekin
konformatzen eta gehiago nahi du:
profesionalismoa du begiz jota.
ARAMA, 4

Urriaren 5ean zatoz Lazkaora!

Goierriko HITZAren 20 urteak ospatzera

11:30-13:30 Erraldoiak eta buruhandiak dultzainariekin

17:00 Bakuntza taldea plaza inguruko kaleak alaitzen

18:00 Herri kirolak, 7 herrien arteko lehia

Urrebu Zumarraga

Idiazabal

Lazkao

Gabiria

Ataun

Beasain

Olaberria

19:30/21:00 Trikitixa kaleak alaitzen

21:00 Afaria, trikitilariak alaituta

Pikatzeko mokadutxoak

Patatak errioxar erara

Karrilerak saltsan

Iztuetak eskainitako postrea

Ura, sagardoa, ardoa eta kafea

Laguntzaileak



Babesleak



Esker mila denoi bidelagun izateagatik!

«Inguruko berriak eskura edukitzeko tresna da»



Arantxa Artza (Altzaga). «Hasiera-hasieratik naiz harpide. Gure inguruko berriak jasotzen dituelako, herririk handienetarik txikienetaraino, eta zehaztasun handiz. Bizipen pertsonalak kontatzen dituzten albisteak ditut gogokoenak. Kulturari toki gehixea emango nioke. Harpide zergatik? Gure inguruko berriak (ekitaldien agenda barne) erraz eta eskura edukitzeko tresna eder, eguneratu eta merkea galtzen ari delako harpidetza hau gabe».

irakurri ahal izateko eta bertako hedabideak bultzatzeko egin nintzen harpide. Inguruko ezagunen elkarrizketak irakurtzea gustatzen zait gehien. Hobetzekoan artean, herri txikietak harpidedunen banaketa dago. Harpidedun ez direnei, GOIERRIKO HITZA irakurri eta harpidedun egiteko eskatuko nieke».

«HITZA irakurri eta egin zaitzete harpidedun»



Josu Aldalur (Arama). «Aspalditik naiz harpide. Ez naiz gogoratzen baino nahiko hasieratik esango nuke. Bertako berriak euskaraz

irakurri ahal izateko eta bertako hedabideak bultzatzeko egin nintzen harpide. Inguruko ezagunen elkarrizketak irakurtzea gustatzen zait gehien. Hobetzekoan artean, herri txikietak harpidedunen banaketa dago. Harpidedun ez direnei, GOIERRIKO HITZA irakurri eta harpidedun egiteko eskatuko nieke».

«Gehien baloratzen dudana gertukotasuna da»



Aratz Aranburu (Ataun). «Sortu zenetik naiz harpide. Pandemia garaian baja eman nuen, baina orain dela hiru urte berriro egin nintzen harpide.

Gehiena baloratzen dudana gertukotasuna delako, gertukoa ezagutzea, ikustea, entzutea, bizitzea. Harpideok eta HITZA-ko lantaldeak elkarrekin egin behar dugu bidea. Denon arteko irrika eta pasio bat izan behar du, egunerokoari helduz. Paperean irakurtzea gustatzen zait, etxeko gazteei prentsa idatzia helarazteko modu bat da».

«Egunero leitzen dugu HITZA, horretxek informatzen gaitu»



Maria Ixabel Urruxulegi eta Joxe Agustin Jauregi (Beasain). «Hasiera-hasieratik gara GOIERRIKO HITZA-ren

harpidedun Egunero ematen diogu pasada bat egunkariari, horrexek informatzen gaitu gu Goierri inguruan pasatzen den guztiaz. Den-dena irakurtzen dugu: zer ekitaldi dagoen, feriak kontuak, dendak itxi eta ireki zein egin duten... Beasaingo albisteez gain, beste herrietakoak ikustea ere gustatzen zaigu, Zumarraga-Urretxu eta Legazpi aldekoak ere bai».

«Etxeko guztiok irakurtzen dugu»

Ana Mendiguren (Ezkio). Betidanik harpideduna da Ana Mendiguren ezkiotarra, eta HITZA-ren gertukotasuna gustatzen zaio. «Aspalditik gara harpidedun, HITZA hasi zen egunetik bertatik. Hutsik egin gabe, egunero irakurtzen dugu egunkaria. Hiru gara etxean momentu honetan, jubilatuta gaude hirurok, eta denok irakurtzen dugu, egunero-egunero tarte bat hartuta. Orokorrean, daukan gertukotasunak erakurtzen gaituela esango nuke. Bertako berriak dira, eta horiek gustura jasotzen eta irakurtzen ditugu».

Antio
CONSTRUCCIONES ERAIKUNTZAK

Eraikuntzarako IRTENBIDEAK

Urola, 8 Pab. 21-22
20230 - Legazpi

943734574
606342357
606241258

www.antio.es
construccionesantio@antio.es

- obrak eta mantendimendu industrialak
- eraikuntza eta urbanizazioak
- birgaitza eta erreformak
- obra zibila
- obra bereziak

LAZKAOKO UDALA

943 08 80 80 lazkao.eus

✕ @ f

«Informazioa ordenatuta eta modu errazean du»



Ibon Elgarresta (Gabiria). «Orain dela urte batzuk egin ginen etxean harpidedun. Gurasoen etxean betidanik ezagutu dugu HITZA, eta gertuko infor-

mazioa etxean jasotzeko bide oso ona iruditzen zitzaigulako hasi ginen; bide batez, bertako euskarazko hedabide bati laguntza emateko. Irakurtzeko oso modu arina du, gertuko informazioa modu ordenatuan eta errazean jasotzen da, eta inguruko ekintzen berri ematen digu».

«Herri txikietako berriak jakitea gustatzen zait»



Jexux Mari Telleria (Gaintza). Kale Txiki taberna-jate-txean hartzen du egunkaria Telleriak. «*Goierritarra* zen lehen, eta HITZA sortu zenetik gara harpide. Guk

egunero irakurtzen dugu, eta tabernara etortzen diren bezeroek ere bai». Ostalariari «neurriko» egunkaria iruditzen zaio, eta argi du zer duen gustuko. «Herrieta-ko berriak jakitea, batez ere herri txikieta-koak». Goierritarrak proiektua babestera animatu ditu. «Ez da horrenbeste diru».

«Ezagunen elkarrizketak gustura irakurtzen dira»



Alaitz Alustiza (Idiazabal). Sortu zenean harpide egin, gerora utzi, eta orain hiru urtetik, atzera harpide. «Bertakoa da, eta euskarazko prentsa irakurtze-

ko aukera borobila da GOIERRIKO HITZA. Gainera, etxetik mugitu gabe jasotzen dugu». Herriko eta inguruko herrietako albisteak ditu gustuko, baita elkarrizketak ere. «Askotan ezagunak dira, eta gustura irakurtzen dira». Zozketei eta lor daitezkeen sariei ere aipamena egin die.

«Euskaraz irakurtzen asko lagundu dit»



Lurdes Maiz (Itsaso). Ikaztegietakoa izatez, okinaren bidez jasotzen du HITZA Zabalegi baserrian. «Euskararen aldekoa delako egin nintzen harpide. Niri eus-

karaz irakurtzen asko lagundu dit. Goitik behera irakurtzen dut». Webgunean ere irakurtzen du: «Saltseatzen ibiltzen naiz». Astean behin edo bitan, egunkariak denbora-pasak ekartzea gustatuko litzaioke, batez ere sudokuak. «*GoiBerri*-ko gurutzegrametako hitz asko ez ditut ulertzen».

«Bertakoa eta euskaraz delako naiz harpidea»



Nerea Martinez (Itsasondo). Duela «15 bat urte» harpidetu zen GOIERRIKO HITZA-ra Nerea Martinez itsasondoarra. «Bertakoa delako, nire herriko eta

inguruko albisteak jasotzen dituelako eta euskaraz delako harpidetu nintzen. Albisteekin batera, agenda begiratzea ere oso gustuko dut. Urte hauetan aldaketak izan badira ere harpidetzan, paperezko edizioaren harpidea izaten jarraitzen dut, nahiago dut».

«Kalitatezko kazetaritza egiten du HITZA-k»



Ane Murumendaraz (Lazkao). Duela pare bat urte egin zuen GOIERRIKO HITZA-ren harpidetza Ane Murumendaraz lazkaotarrak. «Kazetaria naiz eta

garrantzitsua iruditu zitzaidan harpide-tza egitea, Goierri gertatzen den guztiaz informatuta egoteko, zer eta euskaraz gainera. Uste dut, kalitate handiko kazetaritza egiten duela GOIERRIKO HITZA-k, erreferente dela Goierriko informazioari dagokionean».

TXINDOKIrent

KONPONBIDEAK ALOKATUZ / ZERBITZUAK SALDUZ

Makineriaren alokairua eta salmenta

943 070 700

Altune, 4 D-E, 20212 OLABERRIA

alquilerestxindoki.com

«Euskaldunok ez badugu parte hartzen, nork?»



Elisa Lasa (Legazpi). Hasiera-hasieratik, GOIERRIKO HITZA sortu zenetik harpidea da Elisa Lasa. «Irakas-kuntzan lana egin nuen, eta euska-

rekiko konpromisoak bultzatu ninduen harpide egitera. Euskaldunok ez badugu parte hartzen, nork?. Gainera, Legazpin bizi naizen lazkaotarra naiz, eta jaioterrian zer gertatzen den informatuta egoteko irakurtzen dut. Edizio digitalean ere ibiltzen naiz, baina papereko edizioa nahiago dut».

«Bertako nortasunaren adierazle da»



Agurtzane Allur (Legorreta). «Hamar bat urte izango dira harpidetza egin nuenetik. Egunero saiatzen naiz irakurtzen, eta horrela ez

bada, bat baino gehiago irakurtzen ditut batera askotan. Gehien gustatzen zaidana gertuko informazioa euskaraz jasotzeko aukera da, eta agenda. Tokiko prentsa ezinbestekoa da niretzat, bertako nortasunaren adierazle delako. Zergatik izan harpidedun? Euskal komunitatea indartzeko laguntzeko keinu bat delako».

«Iluntzean hartzen dut denbora irakurtzeko»



Patxi Agirre (Mutilloa). 2015ean egin zuen Patxi Agirre mutilloarrak GOIERRIKO HITZA-ren harpidetza, «bertako notizien berri izateko». Bederatzi

urte daramatza, beraz, eskualdeko ekitaldi, ekintza eta herritarren nondik norakoen berri izaten egunkariaren bidez. «Iluntzean hartzen dut denbora irakurtzeko, lanetik etorritakoan». Herrikako banaketa du gustukoan, herri bakoitzean zer dagoen jakitea. «Mutilloa, Beasain, Segura...herri bakoitzekoa».

«Bertakoa, eta euskaraz, bultzatu behar dugu»



Garikoitz Arrieta (Olaberria). 2004ko urriaren 12tik da harpideduna Arrieta. «Nik uste dudalako bertako hedabidea, eta euskaraz,

lagundu eta bultzatu beharra daukagula, ez nuke nahi desagertzea. Etxera iristen zitzaidan garai batean, eta egun tailerrean jasotzen dut. Han bertan, behintzat, orokorreko begiratu bat jotzea gustatzen zait. Ondoko herrietako informazioa izatea gustatzen zait gehien: festak, kirola, kultura... Informatzeko modu bat da».

«Euskarak horrelako hedabideak behar ditu»



Izaro Intsausti (Ordizia). «Gurasoak harpidedunak dira eta bakarrik bizitzera joan nintzenez, 2014an, GOIERRIKO HITZA nirekin

eraman nuen. Zergatik? Gurea delako, hurbileko informazioa ematen digulako eta euskaraz delako. Inguruko berri izateko tresna baliagarria da. Egunero, gainera. Oraindik harpidedun ez direnak, berandu dabilta. GOIERRIKO HITZA oso garrantzitsua da. Gure hizkuntzak horrelako hedabideak behar ditu».

«Azken etxean bizi gara eta etxera ekartzen dute»



Begoña Lizarralde (Ormaiztegi). «Hasieratik naiz harpidedun. Beasaindik Ormaiztegi etorri ginenean, GOIERRIKO HITZA-ren falta sumatu nuen

eta harpidedun izaten jarraitu nuen. Euskarazkoa delako, bertakoa... Ormaiztegiko azken etxean bizi gara eta etxera ekartzen digute. Beste edozer lortzeko, herrigunera joan beharra dut. GOIERRIKO HITZA osorik irakurtzen dut. *Goiberri* ere asko gustatzen zait. Bestela, nola izan Goierri gertatzen denaren berri?».

ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak
1994tik

LANGUAGE SCHOOL
MEKANOGRAFIA
IKASKETA TEKNIKAK
ESKOLA LAGUNTZA
UNIBERTSITATE MAILA

Joan Iturralde, 5 - BEASAIN
943 160 120 - 747 486 015

[ikaskide.eu](https://www.ikaskide.eu)

LEGAZPIKO UDALA

943 73 70 30

www.legazpi.eus

«Inguruko albisteak beti interesatu zaizkit»



Ioritz Arizkorreta (Segura). «Duela lauzpabost urtetik naiz harpidedun. Ama harpideduna da eta etxetik joandakoan nik ere GOIERRIKO HI-

TZA hartzea erabaki nuen. Izan ere, inguruko herrietako albisteak beti interesatu zaizkit. Festen eta kultur ekitaldien ingurukoak, elkarrizketak... dena irakurtzen dut. Ez diot akatsik ikusten. Gainontzeko komunikabideetan zabaltzen ez diren albisteen berri ematen du. Hemengo egunerokotasuna islatzen du».

«Euskara bultzatzeko aukera polita da»



Eli Unanue (Urretxu). Gurasoen etxean HITZA jasotzen zutelako, eta independizatu zenean «HITZA irakurtzeko tarterxo hori faltan

sentitzen» zuelako egin zen harpide Eli Unanue, 2021ean. Bestalde, «euskara bultzatzeko aukera polita» ere iruditzen zitzaion, baita «inguruko euskarazko komunikazio talde txiki bati babesa ematea ere». *Goiberri* ere «oso gustura» irakurtzen du ostiraletan, eta denbora pasak egitea asko gustatzen zaiola aitortu du.

«Euskararen alde alea jartzea da harpide egitea»



Ibai Beloki (Zaldibia). Duela bi urte egin zen harpide, independizatu zenean; aurretik familiako etxean irakurtzen zuen. «Euskaraz egiten

den egunkari gutxietako bat» da, eta «inguruko albisteak euskaraz jasotzeko, eta irakurtzeko» egin zen harpide, eta etxeko ohiturak bultzatuta. Goierritarra izanik, Goierriko albisteak jasotzea «polita» dela dio, gertutasuna, eta elkarrizketak ditu gustuko bereziki. «Harpide egitea euskararen alde alea jartzea da» Belokirentzat.

«Aukera bikaina da eskualdea ezagutzeko»



Imanol Garmendia (Zegama). Zegamar honek argi izan zituen duela 20 urte HITZA-ren harpidetza egiteko arrazoiak: «euskarazko komunikabi-

de bat babestea, eta gertuko herrietako berriak jasotzea». Erreportajeak ditu gustukoak, eta bereziki inguruko mendiekin zerikusia duen oro. Ez du ezer faltan sentitzen, «akaso, egunero kaleratzea». Euskaraz irakurtzeko eta «eskualde osoa ezagutzeko aukera bikaina» dela dio, besteak ere harpide egiteko animatuz.

«Paperari eutsi egiten diot»



Aitziber Makazaga (Zerain). «Aspalditik» da Makazaga GOIERRIKO HITZA-ko harpidedun. «Gogoratu ere ez naiz egiten noiz hasi ginen HI-

TZA jasotzen». Eskualdeko informazioa jasotzeko eta militantziagatik egin zen harpidedun. «Badakit beste bide batzuk badaudela, baina nik paperari eutsi egiten diot». Zerain bezalako herri txiki bateko kidea izanda, hobetzeko artean presentzia orekak bermatu behar direla uste du, eta herri txikiei toki gehiago eman.

«Guk babestu ezean, nork egingo du?»



Joanes Jaka (Zumarraga). Urteak dira Joanes Jaka GOIERRIKO HITZA-ren harpidedun egin zenetik. «Euskal prentsa bultzatzeko egin

nintzen harpidedun», oroitu du. Goizean-goiz irakurtzea gustatzen zaio, baina denbora kontuengatik arratsalde edo iluntze partean egiten du nagusiki. Irakurlea izan baina Hitzakidea ez den horri, merezi duela esango lioke. «Euskaldunok euskarazko prentsa ez badugu babesten, nork egingo du?»



Etorkizun multiteknologiko eta jasangarrirako prest

135



FOR A
BETTER
LIFE

LURDES INTXAUSTI HITZAKIDEA

LIDE EGIZALA URTEAGA

Noiztik zara Hitzakide? Eta zergatik?
Hasieratik naiz Hitzakide. Inguruko informazioa eskuratzeko baliabide bikaina dela iruditzen zait eta nire inguruan egunero zer gertatzen den jakitea gustatzen zait.

Zein atal gustatzen zaizu gehien irakurtzea?

Dena irakurtzen dut, ez daukat atal gustukoarik. Oso erraz irakurtzen den egunkari bat da eta denari erreparatzea ematea gustatzen zait.

Nola irakurtzen gaituzu? (Paperean, digitalki...)

Lehen paperean irakurtzen zintuztedan, baina orain digitalean. Bi erataria gustatzen zaidan arren, digitalki nahi dudanean irakurtzeko aukera ematen dit, goizean goiz jaiki eta banatzaileak egunkaria noiz ekarriko zain egon beharrik gabe.

Noiz irakurtzeko ohitura duzu GOIERRIKO HITZA?

Egunero, goizean gosariarekin batera irakurtzea gustatzen zait. Nire eguneko plazer txiki bat da momentu hori.

Zerk desberdintzen gaitu beste egunkari batzuetatik?

Oso gertukoa egiten zait niri GOIERRIKO HITZA. Normalean planak eskualdean egiten ditudanez, inguruko berrien informazioa jasotzea gustatzen zait. Gainera albisteak oso erraz irakurtzen dira.



Hitza

«Bi erataria probatu dut eta egokien datorkidan aukera aukeratu dut»

Hitzakide ez den irakurle bati zer esango zenioke?

Esango nioke, lehenik eta behin, paperean irakurtzeko egunkaria. Horrela bertsio tradizionalan ea gustatzen zaion ikusiko lukeela. Zer den ikusi eta gustatuz gero, bi bertsio dituela esango nioke: paperean edo digitalean. Nire kasuan bi erataria probatu dut eta uneoro egokien datorkidan aukera aukeratu dut. Horrez gain, inguruko prentsa denez, esango nioke merezi duela harpidedun egitea. Aurrera jarraitzeko laguntza eskaintzeaz gain, eskualdeko euskara bultzatzeko ere balio duelako.

Zure inguruan ohikoa al da HITZA irakurtzea?

Bai, oso ohikoa da. Ni bizi naizen inguruan, hala ere, paperezkoa irakurtzen da gehien.

Zozketetan parte hartzen al duzu?

Zozketetan parte hartzen dut eta tokatu ere bai. Oso sari onak jartzen dituzue eta azkenean jendea erakartzeko gantxo txiki bat dira.

Goiberri irakurtzen duzu?

Goiberri aldizkariaren harpidetza ez daukat, baina nire ingurukoei eskatzen diet tarteka eta asko gustatzen zait irakurtzea. ■

EGUZKI ENERGIA PLAKAK

Diseinatu
Instalatu
Mantendu

TAPIA
energia

943 889 594
www.tapiaenergia.com

UGGASA
URDOLA GARRAMA GARRATZEN

- ▶ Eskualdeko ETEi babesa eta lehiakortasuna hobetzeko proiektuak
- ▶ Langabetuentzako orientazioa, lan poltsa / eskaintzak eta enplegu programak
- ▶ Enpresa sorrerarako aholkularitza prestakuntza, inkubategia eta cowork-a

AHALEGINAK
BATUZ

www.uggasa.eus
Patrizio Etxeberria, 3, solairuartera
Legazpi (Gipuzkoa)
Tel. 943 72 58 29/ 30
uggasa@uggasa.eus



Lide Egizala Urteaga

«Horrelako ekimen bati laguntza ematea garrantzitsua da»

MIKEL MARKOTEGI HITZAKIDEA

LIDE EGIZALA URTEAGA

Noiztik zara Hitzakide? Eta zergatik?

Duela hiru edo lau urtetik esango nuke. Kanpaina bat irakurri eta gero izan nuen Hitzakideren berri. Zergatiari dagokionez, Goierri eskualdean sinesten dudanez, eta goierritarra naizenez, informazio iturri interesgarri eta bikaina iruditzen zait. Goierriko albisteen berri HITZA-ren bidez dakit eta agenda ere asko jarraitzen dut herri desberdinetan zer dagoen jakiteko.

Egunero irakurtzen duzu? Eta zein bertsiotan?

Bai, normalean bai. Goizean goiz gustatzen zait irakurtzea, 08:30 eta 10:00ak tartean. Pasada batean irakurtzen dut, batzuetan paperezko bertsioan eta beste batzuetan online ere sartzen naiz.

Zerk desberdintzen gaitu beste egunkari batzuetatik?

Berta-bertako eta gertuko informazioa eskaintzea esango nuke dela desber-

dintasun nabarmenena. Gertuko informazioa euskaraz eskaintzen duen egunkari bakarra da eskualdean eta asko baloratzen dudana zerbait da. *Berria* eta bestelako egunkariak ere irakurtzen ditut, baina ni bizi naizen eremuko informazioa eskuratzeko GOIERRIKO HITZA dut aukerarik onena. **Hitzakide ez den irakurle bati zer esango zenioke?**

Besteei ezer esatea baino, ni zergatik naizen Hitzakide esango dut. Uste dut horrelako ekimen bati laguntza ematea garrantzitsua dela eta niri nire aletxoak jartzea ez zait batere kostatzen. Askok baloratzen dut horrelako zerbitzu bat jaso ahal izatea.

Zure inguruan ohikoa al da Hitzakide irakurtzea?

Inguruan badituzte lagunak eta ezagunak GOIERRIKO HITZA irakurtzen dutenak. Gure elkartearen ere ohitura badago.

Zozketetan parte hartzen al duzu?

Bai, eta asko gustatzen zait parte hartzea. Gainera uste baino gehiagotan tokatu izan zait sariren bat edo beste. Zozkatzen diren gauzak oso erakargarriak iruditzen zaizkit: Ordiziako gazta lehiaketako gazta irabazlea, edo duela aste batzuk, Lazkaoko garagardo azokara joateko sarrerak zozkatzea sari ederrak iruditzen zaizkit.

Goiberri irakurtzen duzu?

Oso gustura irakurtzen dut. Elkarriketak daudenean asko gustatzen zait eta baita Kate motzean atala ere. Pertsonen alde naturalena erakusten da bertan, eta askotan, Goierri eskualdea oso handia ez denez, jende ezagunarekin topatu izan naiz. ■



HIZKUNTZA

berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako soluzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara...eta gainera euskaraz.

"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"
Antoine de Saint-Exupery



Goierriko Hedabideen oinarri nagusienera itzazko prentsan GOIERRIKO HITZA-n eta Goiberri-n, eta sarean *otamotz.eus*, *goierri.hitza.eus* eta *goiberri.eus* webgunetan iragartzen diren bezero komertzialak.

Erakunde publikoetatik hasita (udalak nahiz Gipuzkoako Foru Aldundia), eskualdean dauden enpresa nahiz kooperatiba multinazionalak, lokalagoak direnak baino era berean eskualde-bera aberastasuna eta lana ekartzen dutenak, garapen agentziak, negozio familiarrak, autonomoak eta herrietako komertzioak eta horiek dinamizatzen dituzten merkataritza elkartek dira ekosistema aberats hau osatzen dutenak.

Goierriko zorionez ekonomia sare indartsua du, elkarlana bilatzen duena, bertakoa babesten duena eta euskara sustatzen duena. Esan daiteke gure hedabideetan argitaratzen dena eskualdearen nolabaiteko isla ere badela; publizitatea egiten duten iragarleek, bakoitzak beren motibazioekin, bat egiten dute balio horiekin guztiekin.

Askotarikoak izan daitezke eskualdeko euskarazko prentsan iragartzeko arrazoiak: ezagutzera ematea, gehiago saltzea, marka irudia sustatzea, zerbaiten berri ematea, proiektuari laguntza ematea, komertzialak bakean utz dezan lortzea... Edozein delarik ere gure eskerrik beroena eman nahi diegu, denei.



Goierriko Hitzaren ale guztiei egiten diete ekarpena bezero komertzialek.

Kerman Garralda Zubimendi

Iragarleen ufadak bultzatzen du belaontzia

Duela 20 urtetik hona urtero publizitatea egin izan duten iragarleek aipamen berezia merezi dute, eta horien artean goraitatze-koak dira herrietako komertzioak eta enpresa txikiak; sekulako altxorra dira bai GOIERRIKO HITZA-rentzat, eta baita eskualdearentzat berarentzat ere.

Tokian tokiko komertzioetan erostea funtsezkoa da herriak bizirik mantentzeko. Bertako denda txikiak Goierriko 23 herrietako ekonomia sustatzen dute, lanpostuak sortzen dituzte, eta gertuko zerbitzua eskaintzen dute. Gainera, saltoki horiek bertako produktuak eta nortasuna babesten laguntzen dute, komunitatea indartuz. Kanpoan erosten dugunean, dirua eta baliabideak herrietatik ateratzen dira, eta ondorioz, herriko merkataritza ahultzen da. Tokiko komertzioetan erosiz, gure herrien etorkizuna babesten dugu, bizitza, kultura eta hurbiltasuna indartuz.

Jarraituko dugu aurrerantzean ere eskualdeko ekonomia sarean publizitate bidezko babesa bilatzen, ahal dugun modurik egokienean, errespetuz eta publizitatea egiten duenari ahalik eta zerbitzurik onena ematen, egiten duen inbertsioak lagundu diezaion berari ere bere helburuak erdiesten.

Laster izango gara publizitate proposamen berriren batekin...

Eskerrik asko. ■

JON MUJIKA

BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA
 Jose M. Iturriotz, z/g
 (LANBIDEn parean)
BEASAIN 943 02 81 00

URRETXU-ZUMARRAGAKO UDAL EUSKALTEGIA
 Labeaga kalea, 40 A
 (Belaustegi Plaza Berria)
URRETXU 943 72 33 10

JOSUNE & KLAUDE
 ileapaindegia & edergintza

- Ileko tratamendu guztiak • Ileko osagarriak • Solariuma
- Depilazioa: laserra, elektrikoa, argizarizkoa
- Aurpegi eta gorputz tratamenduak: gatzarekin, lokatzarekin, olio esentzialekin

📍 T. 943 16 22 56 • Iturtxo bidea, 5 • ORDIZIA

EKAIN MENDIZABAL MUJIKA MUJIKA LIBURUDENDA

LIDE EGIZALA URTEAGA

Zergatik babestu GOIERRIKO HITZA?

Euskararen aldeko aldarria egiten duen edozer gauza babestea oso garrantzitsua iruditzen zaigulako. GOIERRIKO HITZA, *Berria*-rekin batera, euskaraz soilik egiten den egunkari bat da eta hori baloratu eta zaindu egin beharko genuke.

Zer da GOIERRIKO HITZA-tik gehien gustatzen edo baloratzen duzuen?

Bertakotasuna, bertako berriak izatea. Goierriko eskualdean ekintza ugari egiten dira eta horien berri ematen duen egunkari bat izatea asko baloratzen dugu.

Denda bezala GOIERRIKO HITZA babesteaz gain, zuek, langileok, harpidedunak al zarete?

Bai, familia guztia gara Hitzakideak. Herritar bezala, euskarazko informazio iturri baliagarria zaigu inguruko ekin- tzez enteratzeko.

20 urteetan asko aldatu al da zuen sektorea?

Bai, erosteko modua asko aldatu da. Gaur egun areagotu egin da digital- ki irakurtzeko ohitura eta liburuak saltzeko garaian nabarmena da hori. Gure kasuan, liburuez aparte, paper- denda bezala ere funtzionatzen dugu, aldizkariak eta eskolako materialak salduz. Ikasturte hasierako egunetan gorakada nabarmena izaten dugu.



Lide Egizala Urteaga

«Eskualdean egunkari bat izatea asko baloratzen dugu»

Jendeak zer irakurtzen du?

Egunkariak beherakadan doazela iruditzen zait orokorrean, paperezko formatuan behintzat. Liburuei dagokionez, gure dendan eleberriak dira gehien saltzen direnak, bai gazte eta helduen kasuan.

Irakurtzeko ohitura ba al dago gaur egun? Eta euskaraz?

Bai, jarraitzen du jendeak irakurtzen, gazteen kasuan askotan eskolatik

behartuta bada ere. Hala ere, esango nuke heldu zein gazteek euskaraz irakurtzeko ohitura badutela gaur egun. Gainera, geroz eta aukera handiago dagoenez, bakoitzak bere gustoko liburua aurkitzea errazagoa da.

Hemendik beste 20 urtera zer gertatuko dela uste duzu?

Zaila da esatea, baina digitalizaziora- ko joera geroz eta nabarmenagoa dela ziurra da behintzat. ■

BENETAKO ARTZAI GAZTA
Gure artzaiek beraien ardi Latxaren esne gordinez egindako gazta.

www.artzai-gazta.eus

Kale Nagusia, 37 - Idiazabal
T. 943 18 71 29

ELKARTEA

ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Unión Europea

Udalak, GOIERRIKO HITZAren hornitzaile eta sostengu

GOIERRIKO HITZAK 20 urte bete baldin baditu, eskualdeko udal guztiek proiektua babesteko egin duten ekarpen eta lan guztiagatik izan da. Arduradun politikoak aldatu dira, baina sostenguari eutsi diote.

IDOIA MENDEZ

GOIERRIKO HITZA-ren lantaldearen izenean, eskerrik beroena eskualdeko udal guzti-guztiei. Zuen babesik gabe sekula ez zen gorpuztuko eskualdeko eta euskarazko egunkari bat sortzeko ideia, eta ez luke biziraungo 20 urte hauetan hauspoa ez bazenute emango. Zuen laguntzarik gabe, ezinezkoa litzateke gure proiektu hau aurrera eramatea, eta horrek are argiago uzten du elkar elikatzen gara.

Goierriko udal guztiak, bakoitza bere errealitate, izaera eta erronketan, beharrezkoak izan dira, eta izan za-

rete, gure eguneroko lana sustatzeko eta sendotzeko. Ekarpene ekonomikoaz harago, udalak dira eduki sortzaile ugarienetarikoak, informazio iturri fidagarri, ikus-entzunezko materialaren hornitzaile.

Horregatik, hitzez adierazi nahi dizuegu GOIERRIKO HITZA egunkariaren izenean, zuen esfortzu eta konpromisoari esker gaur egun arte gure bideari eutsi ahal izan diogulako. Zuek gabe, egitasmo hau ez litzateke posible izango, eta Goierriko herritarrek bertako informazioa modu hurbilean jasotzeko aukera galduko lukete.



ORDIZIA
San Juan
21 ETXEBIZITZEN SUSTAPENA

Etxebizitzen diseinuan parte hartzeko aukera, bai distribuzioan, baita materialetan ere

A^U
Aldape Etxegileak
943 814 750
608 524 310

www.aldapeetxegileak.com

natx
Dietetika-Belardenda

- Medikuntza orokorra eta alternatiboa
- Erreflexologia eta emozioen kudeaketa
- Elikagaien bateraezintasuna
- Dietista-nutrizionista

Familia ugarietarako deskontuak

Kale Nagusia, 15 BEASAIN tel.: 943 08 91 15

Goierriko udalerrri bakoitzak eskaintzen duen aniztasuna, kultura aberastasuna eta garapen soziala islatzea izan da beti gure helburua, eta zuen babesari esker, helburu horiek gauzatzen jarraitu ahal izango dugu etorkizunean ere. Komunikabide bat ez da soilik albisteak emateko tresna bat; zuen laguntzari esker, GOIERRIKO HITZA komunitatearen parte aktiboa izan da, eta izango da, zuen tokiko behar eta gertakizunen ispilu izaten.

Eskerrik asko, bihotzez, GOIERRIKO HITZA egunkariaren eguneroko mar-txa posible egiten duzuen udalei. Zuen babesari esker, Goierriko ahotsa izaten jarraituko dugu, eskualdeko herritarren onurarako eta garapenaren mesedetan. Zuen lankidetzeta eta konfiantza beti eskertuko ditugu, eta hemendik aurrera ere, elkarrekin bide luze eta oparoa egiteko prest gaude.

GOIERRIKO HITZA: zuen udalerrietako bizitza eta gertakariak jaso, zabal-tzen eta elkarrekin indartzen jarrai-tzeko prest! Eskerrik asko! ■



BEASAIN



EZKIO-ITSASO



GABIRIA



GAINTZA

Adierazlea kontu guztiei dagokie

1/6

Zenbaki hau produktuaren arriskua-
ren adierazlea da: 1/6 zenbakiak
arrisku bikiagoa adierazten du, eta
6/6 zenbakiak, berriz, handiagoa.

Kutxabank Kreditu Erakundeen Gordai-
luak Bermatzeko Funtzari abakita dago.
Funts hori urriaren 14ko 16/2011 Errege
Dekretuan aurreikusita dago. Funts ho-
rek gaur egun gehienez 100.000 euro
bermatzen ditu gordailugile bakoitzeko.

KUTXABANK KONTUAK ETA TXARTELAK

KUTXABANK
KORNER
kutxabankkorer.eus

*31 URTEK BEHERAKO KUTXABANKEN BEZEROENTZAT: KONTU GUZTIAK MANTENTZE-KOMISIORIK GABE (ITN ETA UTB %0); KORNER TXARTELAK JAULKIPEN ETA MANTENTZE-KOMISIORIK GABE; ETA PREMIAZKOAK EZ DIREN ONLINE BANKAREN BIDEZ EGINDAKO OHIKO SEPA TRANSFERENTZIAK DOAN. KUTXABANK SA, KALE NAGUSIA 30-32, BILBO, IFK: A95653077. BIZKAIKO MERKATARITZA ERREGISTROAN INSKRIBATUTA DAGO. 5226 LIBURUKIA, 0 LIBURUA, BI-58729 ORRIA, 1. FOLIOA, 1. INSKRIPZIOA.





IDIAZABAL



ITSASONDO



LAZKAO



LEGAZPI



LEGORRETA



MUTILOA



OLABERRIA



ORDIZIA



ORMAIZTEGI

Ibaiondo
ARROZTEGIA
ALTZARIAK

Katea katea, 5
Beasain www.mueblesibaiondo.com 943 16 40 40
639 631 640

Olaberriko Udala

San Joan Enparantza 1, Olaberria • 943 88 14 34

olaberria.eus



SEGURA



URRETXU



ZALDIBIA



ZEGAMA



ZERAIN



ZUMARRAGA

Luma Gorri
BERTAKOIA · BETIKOIA · BASERRIKOIA

Baserriko OILASKOIA
Paregabea!



GOIERRIKO HITZA-ren lehen zenbakia irakurtzen, 2004ko urriaren 4ko aurkezpenean. Idoia Luzuriaga



CITROËN
TXINDOKI garajea

Mallutz 3 - ORDIZIA
 943 88 66 22
 garajetxindoki@gmail.com



AGIRRE ERAIKUNTZAK



GARABI, POLIPASTO ETA MONORAILAK
 INSTALAZIOA
 KONPONKETA
 MANTENIMENDUA
 BERRITZEA

Senpere, 12 Lazkao Tel.: 943 88 15 57

www.agirre-eraikuntzak.eus

Euskararen egunerokoan ardazketa

Aste honetan hogei urte beteko dira GOIERRIKO HITZA egunkariaren lehenengo zenbakiak argia ikusi zuenetik. Euskarazko prentsa zabaltzeko estrategia nazional-lokalaren emaitza zen, eskualdea batu zuena.

AIMAR MAIZ

Euskaldunon Egunkaria-ren garaikoa du sorburua GOIERRIKO HITZA-k. Nahiz eta argia ikusi zuenerako hura itxia zeukaten, ideia eta planteamen-dua 2001ekoa dute tokiko euskarazko prentsa idatziaren eguneroko agerka-riek. *Tolosaldean Egunero* izan zen aurrena, Egunkariaren Herri Informazioa enpresak eta Tolosaldeko euskalgintzak eta tokiko aldizkariak elkarlanean sortua.

2001eko abenduaren 18an ateratu zen tokiko egunkariaren aitzindaria. Jarraian, asmoa zen beste eskualde batzuetan zabaltzea egitasmoa. 2002an, adibidez, Donostian eta Urola Kostan hasi zuten lanketa. «Ez zen garai erraza, eta hasiera zaila izan zen. Ezker abertzalearen ilegalizazio garaia zelako; guk sektore hori ere kontuan hartu genuen proiektua azaltzeko eta. EAJk eta EAK ez ziguten diru laguntza ematen, jaurlaritza-tatik, aldunditik edo udaletatik. Alde

Goieki
— GOIERRIKO GARAPEN AGENTZIA —

Etorkizuna eraldatzen duten ideiak!

ENPRESA EKIMEN BERRIEN XXVII SARIKETA

www.goierri.eus

EKIN eta EGIN!

Logos of partner companies: Inzar, AMPO, goilan, Goierri Behakoa Industrialdia, TACTICCO, orkli, ArcelorMittal, HINE, NIPPON GASES, GIB, HITZA, Aluminax, arri, EDERFIL BECKER, ezarri, GAVEA, GOILASER, GH, JRS INDUSTRIAL CRANES, biok2i.



'Goierritarra' aldizkariak bost urte egin zituen egunean, kolaboratzaileak eta eragileak, 1994an. Goierritarra

ekonomikoan, gure irizpideak jartzen genituen mahaian: diru iturri propioak izango genituela, baina udalek ere lagundu behar zutela, modu garrantzitsu batean lagundu ere», gogoratu du Herri Informazioa enpresan sortze lanetan jardun zen Enekoitz Esnaolak.

«Produktu on bat» egitea izan zen, hasieratik, HITZA-ren irizpidea. «Jendeak horregatik hartu behar zuen HITZA, horrela egingo genion on euskararen normalizazioari».

Egunkaria-ren itxiera etorri zen orduan, 2003ko otsailaren 20an. Tokiko egunkarien zabalkunde prozesua moteldu bai, baina ez zuen eten. *Tolosaldean Eguneroko*, gainera, egunkari nazionalaren jarraipidea ziurtatzeko euskarri izan zen, *Egunkaria* itxi eta biharamunean atera baitzen *Eguneroko*.

Ez berehala, baina berriro ekin zieten eskualdeetako egunkarien langintzari ere. HITZA marka hartuta, Tolosaldean, Oarsoaldean, Lea-Artibain eta Urola Kostan ikusi zuen argia.

Bosgarrena Goierriin

Bosgarren HITZA izan zen Goierrikoa, 2004ko urriaren 5ean lehen zenbakia

aterata. «Ja sorrera faseko mekanika hartuta genuen: kazetariari ikastarora eman, bilerak euskara elkarteeekin eta udalekin, bideragarritasuna nahiko ondo kalkulatu, harpidetza kanpainaren estrategia, nolako egunkaria... Gero, tokian-tokian egokitu egin behar. Goierriin ere ondo moldatu ginela esango nuke. Euskaldun asko daude Goierriin, eta ikusten genuen bazegoela potentziala», dio Esnaolak.

HITZA guztien nortasuna barneratu zuen Goierriko egunkariak ere. Marka bera (HITZA), egunkari formatua, argitalpenak asteko sei egunetan (asteleheneretan ez, beste denetan), diseinu bera, kazetaritza estilo bera, banaketa eredu bera... «Horrekin guztiarekin, helburua zen nazionala-lokalak estrategia bat lantzea». *Egunkaria*-k hasieran eta *Berria*-k gero hartu zuten nazionalaren papera, eta Hitzek tokikoetako. «Bi egunerokoen artean hedapen maila handia lortzea zen helburua, informazioaren erreferentzialtasuna lortu, publizitate etxe handiak erakarri eta eragile gisa indartuta».

Goierri osokoa

Beste berritasun handi bat ere txertatu zuen GOIERRIKO HITZA-k: eskualde osoa hartu zuen, goialdea eta behea uztartuta. Alde batetik, *Urolako Kostako Hitza* ordurako sortuta zegoen, 2004ko otsailetik. GOIERRIKO HITZA, bestetik, behealdeko herriekin soilik sortuz gero, «irla modura» geratuko ziratekeen Goierri Garaiko Legazpi, Urretxu eta Zumarraga, tokiko prentsaren eremu beregain izateko murriztegi.

Zumarragako

UGLE ESKOLA

- Batxilergoa
- Oinarrizko Lanbide Heziketa
- Erdi Mailako Zikloak
- Goi Mailako Zikloak
- Espezializazio Ikastaroak
- Ikastaroak
- Enpresa Zerbitzuak







 Urola Garaiko Lanbide Eskola
 Beloki Hiribidea z/a
 Zumarraga
www.ugleskola.eus




Espazioak zureak egiten

BIGMAT URBIL
 Hiribarren Kalea 34 20210 Lazkao
 T 943 008887 **cocoon.eus**

Urretxu-Zumarragako Zintzo Mintzo euskara elkarteko kideak, 2010eko uztailean. Miriam Luki

Beste argudio bat, bateratzeko ezinbesteko pisua eduki zuena, Goierri Garaiko euskalgintzaren sustengua eta komentzimendua izan zen. «Goierri beheko joera zutela ikusita, egokia ikusten zen herri haiek proiektuan sartzea. Eskualdeko jendeak garbi ikusten zuen hori dena. Horrek denak masa bat ere ematen zion egitasmoari: herritar, udal eta bestelako eragile gehiago, irakurle gehiago eta aktibitate handiagoa».

Elkarlanaren fruitua

Berria Taldeko Bertako Hedabideak enpresak bultzatuta –Egunkariaren Herri Informazioa klausuratuaren lekukoa hartu zuen–, Goierriko herri aldizkariaren eta euskalgintzaren ganean kokatu zen GOIERRIKO HITZA-ren proiektua, 2004an zehar. Goierri beheko 19 udalerrietako tokiko informazioa lantzen zuen Goierriarrak Kultur Elkar-tea –*Goierriarra* hamabostekariaren argitaratzailea– eta Urretxu-Zumarra-



gako Zintzo Mintzo euskara elkartea –*Otamotz* herri hilabetekariaren eragilea– sartu ziren enpresa editorearen egituraren. Babes sozial handia jaso zuen GOIERRIKO HITZA-k hasieratik. ■


gako Zintzo Mintzo euskara elkartea –*Otamotz* herri hilabetekariaren eragilea– sartu ziren enpresa editorearen egituraren. Babes sozial handia jaso zuen GOIERRIKO HITZA-k hasieratik. ■



telleria
MACHINING PROJECT MANAGEMENT

www.tmtelleria.com

Tel.: 943 72 40 29
Argixao industrialdea 50, ZUMARRAGA



Nola aldatu garen urteotan



GOIERRIKO HITZAKo lankideak, 2005. urteko Korrikan lekukoarekin.



Hitza, beti etxeraino.





Hitza panpina, hurrekin jolasean. A. A.



Egunkaria, 2004. urtean, buzoian. Hitza



Egunkaria, 2024. urtean, buzoian. K. G. Z.



**Mondragon
Unibertsitatea**
Goi Eskola
Politeknikoa



ZO RI ON AK

GOIERRIKO HITZA



www.mondragon.edu

Denboraren makinan bidaia

Gizartea aldatzearekin batera, 'Goierritarra'-k, 'Otamotz'-ek, GOIERRIKO HITZAK eta 'Goiberri'-k, etengabe egokitzen jakin dute Goierriko istorioak jasotzen eta kontatzen jarrai dezaten.

LOINAZ AGIRRE ELKOROBEREZIBAR

GOIERRIKO HITZA-ren lankide gazte baten galdera, zahar-tzen ari zarenaren seinale den galdera horietakoa: «Internetik gabe nola zen posible lan egitea?». Denboraren makinan sartu, eta 30 urteotako bilakaera eta lanerako moduan egindako bidaitik jaso zuen erantzuna.

Telefono finkoa, hiru ordenagailu, argazki makina analogiko bat eta kasetedun grabagailua. Horiexek ziren orain dela 30 urte eta erdi *Goierritarra* aldizkariako [1989an sortua] lan tresnak. Gaur egun denok daukagu eskuan telefonoa, ordenagailua, argazki kamera eta grabagailua.

Ordenagailu batean albisteak idaz-

ten ziren. Aurretik, herriz herri bilketa lana eginda, kronistek eskuz edo ordenagailuz idatzitako orriak jasotzeko. Edo hitzorduak jartzeko telefono finkotik finkora egindako dei ugarien ondorioz lortutako elkarrizketak idazteko. Grabagailuan kasetea aurrera eta atzera elkarrizketa aurkitu arte, edo elkarrizketaren erdian kasetea amaitu... Makina bat abentura izaten zen. Erantzungailu automatikoaren sorrera ere garrantzitsua izan zen, bulegoan inor ez bazegoen ere, mezuak grabatuta uzteko aukera ematen zuelako.

Argazkiekin urduritasuna

Eta argazkiek sortzen zuten urduritasuna. Eskerrak ordubetean errebe-



Ordiziako Dorrea etxean egon zen 'Goierritarra' aldizkariaren bulegoa. Mikel Albisu / GOIERRITARRA ALDIZKARIA

latzeko modua jarri zuten Ordizian. Hori bai, argazkia nolakoa aterako zen, auskalo! Lausotuta, begiak itxita... ez zegoen jakiterik. Eta jakina, ez zuen atzera bueltarik. Zegoenarekin aurrera egin behar.

Idatzitakoa diskete baten gorde, eta maketazioko ordenagailura, testue-

INPRIMATEGIAZ GAIN
fotokopiak,
itzulpenak,
enkuadernazioak,
plastifikazioak

EGUZKI
INPRIMATEGIA

KALITATE ONEKO INPRESIOAK **A0**
NEURRIRA ARTE

Nafarroa etorbidea, 17 - BEASAIN
Tel 943 88 94 82 / Faxa 943 88 60 44
eguzkiinprimategia@gmail.com

AMPO

FOUNDRY POYAM VALVES SERVICE

www.ampo.com

zabale
— belardenda

Facebook/zabale belardenda
(informazioa, eskaintzak...)

Santa Maria, 8 ORDIZIA
Tel.: 943 88 12 11
zabale@ordizian.eus



kin, argazkiekin eta publizitatearekin orriak diseinatzera. Titularrarentzako hitz mordoz osatutako formula bat, beltzean jartzeko beste bat. Klik bakkarraren orde, denboraren poderioz buruz ikasitako formulak azkartzen zuen lana.

Hamabostean behin, astearte arratsaldero, disketea hartu eta inprentara. Eguraldi iragarpenak ere ez ziren gaur egunekoak. Elurra ustekabea, grebak, bideak itxita istripuren batengandik...

Eta ostegun goizetako lana: *Goierrri-*

tarra-z betetako kaxak eta kaxak hustu furgonetatik, Ordiziako Dorrea etxeko atarian inprobisatutako bulegoan, al-dizkari bakoitzari banan-banan (8.000 pasa izatera iritsi ziren) izen-abizenak eta helbidea zuten pegatinak jarri, eta Correosera eramateko, herriz herri antolatuta. Eskerrak beti izaten ziren laguntzaileak! Hori bai, gaur egun baino zerbitzu hobe eskaintzen zuen orduan Correosek, gehienez, ostiralean txintxo-txintxo eramaten baitzuten harpiden etxeetara.

Faxa eta maketazio sistema berria

Izugarrizko aurrerapenak izan ziren faxa eta maketazio sistema berria. Nahiz eta, testuak kopia behar izan, herriz herri kilometro gutxiago egin beharra zegoen kronikak jasotzeko. Komuneko paperaren *rolloa*-ren antzera, hantxe egoten zen paper amaiezina lurrian barreiatuta, goierritarren informazioz beteta. Gero jakina, dena kopia behar hitzez hitz.

Eta maketazio sistema berria zer esanik ez. Formulak ahaztu eta klik bakkarrarekin lana asko erraztu zen.

Mugikorrek eta kamera digitalak

Telefono mugikor (Internetik gabe oraindik) bana eskuan genituen garaia hitzorduak jartzeko momentuak erraztu zituen, dena delakoa etxera iristeko zain egon beharrik gabe. Eta argazki kamera digitalarekin, argazkiak momentuan ikusteak eta eskura izateak ere bai.

Eta nola ez, Internetaren etorrera iraultza izan zen. Bukatu ziren ordue-

ro irratian albisteak entzun beharreko garaia [2001eko irailaren 11n New Yorkeko atentatuak gertatu zirenean *Goierritarra* amaitzen ari ginen bezala]. Bukatu ziren testuak kopia beharreko garaia. Amaitu ziren inprentara egin beharreko bueltak. Bukatu ziren banan-banan al-dizkariari izenak jarri behar ziren garaia.

Baina amaitu ziren zuzeneko harremanak; denak ez, asko bai. Baina ez da bukatu goierritarren istorioak bildu eta euskaraz zabaltzeko garaia. Ez da bukatu Goierri egiten jarraitzeko garaia. Ez da hartu eta eman, eman eta hartu egiteko garaia da.

Ezin da ahaztu, pandemiak mundua gelditu zuenean ere [2020ko martxoak 14], GOIERRIKO HITZA, *Goiberri* eta *Otamotz* ez ziren gelditu, eta hutsik egin gabe, etxetik laneko ordenagailura konektatzeko tresnei eta onlineko bilerekin esker.

Istoriok idazten jarraitu

Gizartea, lan tresnak eta bitartekoak aldatuagatik ere, eta adimen artifizialaren garaia datorren honetan ere, makinek auskalo zein hizkuntzatan idatziko dituzten istorioen garaian, inoiz baino beharrezkoagoa da euskarazko komunikabideak babestea eta elkarrekin jardutea.

Internetik gabeko bizitzatik adimen artifizialaren bizitzara arteko kontaktuzuna hau izan da. Hemendik aurrerakoa ere, idazten jarraituko du Goierriko Hedabideen lantaldeak, harpiden, iragarleen, enpresen eta erakundeen ezinbesteko babesarekin batera. ■



Beasaingo Udala

beasain.eus

📍 Loinazko San Martin plaza 1

☎ 943 02 80 50

✉ udala@beasain.eus



sukaldeak eta
etxetresna
elektrikoak

suquia

 Kale Nagusia, 10
TEL.: 943 882 300 ORDIZIA

Nafarroa Etorbidea, 16
TEL.: 943 884 375 BEASAIN

www.suquia.eus

Ezagutu GOIERRIKO HITZAREN lantaldea



LOINAZ AGIRRE
Erredaktorea

 **Otaizabal
Aroztegia, S.L.**

Salbatore Auzoa. Izarraitz industrigunea.
Tel./Faxa: 943 160 684
Sakelakoa: 639 645 253/605 757 623
otaizabal@telefonica.net
20200 BEASAIN (Gipuzkoa)



MIKEL ALBISU
Diseinatzailea



KERMAN GARRALDA
Zuzendaria

 **GEURIA**
ALUMINIO AROZTEGIA

943 880 162
Ittola industrigunea, C-4 - Beasain
Errementari kalea, 8 - Tolosa

www.geuria.com



LAIDA GOIBURU
Editorea



IÑAKI GURRUTXAGA
Editorea

NEU albaitaritza 

Albaitari klinika
Irati Apalategi
Albaitaria
Ekografian espezializatua

**Akupuntura eta
txinatar medikuntza tradizionala**

24 orduko urgentzi zerbitzua
www.neualbaitaritza.eus
Nafarroa etorbidea, 1 / Beasain
943 160 675 / 665 741 327
ecoirati@hotmail.com 



MAIDER INSAUSTI
Erredaktorea



TERE MADINABEITIA
Erredaktorea



AIMAR MAIZ
Erredaktorea



IDOIA MENDEZ
Kudeatzailea

BAZTARRIKA
DIAZABAL
www.baztarrিকা.com
Baztarrিকা E.Z. • GABIRIA
943 883 044 • 656 763 595



ERKUDEN MUGURUZA
Diseinatzailea



JON MUJIKA
Komertziala

- 1925etik -
iztueta
esnetan bizi gara
Lazkaomendi 20210 Lazkao
m.667 947 173
www.iztueta.eus | f i



MIREN SUDUPE
Kudeatzailea



ARIANE VIERBÜCHER
Erredaktorea

ZUGAZTIBI
● aholkularitza
● bitartekaritza zerbitzua
● higiezin agentzia
● abokatuak
Errenta eta ondare aitortpenak egiten ditugu
Domingo Unanue plaza, 5 - ORDIZIA
zugaztibi@zugaztibi.eu
T: 943 161 558 M: 639 957 489



ASIER ZALDUA
Erredaktorea



JOSUNE ZARANDONA
Erredaktorea

inausti horts klinika
1998tik
Estitxu Juarez Aldanondo
602 Elk.Zkia.
Maitane Uranga Txintxurreta
904 Elk.Zkia.
Jose Gonzalez Barrera
1.071 Elk.Zkia.
Joan Iturralde, 3
20200 Beasain
Tel. 943 88 46 28

aek
euskara praktikoak

Goi

Ordizian Nafarro Behera, 1
943 88 91 74
ordizia@aek.eus

Beasainen Joxe Miel Iturriotz, 14
943889340
beasain@aek.eus

www.goiztiri.blogspot.com.es

IDIAZABAL BANDERINCHA

La Leze


La Leze S.Z. Jose M^o - Elisabeth - Arkaitz
☎ 945 304 158 • 617 513 536
ILARDUIA (ARABA)

Goierri bus
www.goierribus.eus

943 72 52 50 info@goierribus.eus

Javier Arratibel
optika

© 943 72 54 84
Soraluze, 10
ZUMARRAGA
arratibeloitika@gmail.com



Albisteen tailerra

Erredakzioa da egunkariaren bihotza. Kalean bildutako informazioari bertan ematen dio forma erredaktoreak, testuz eta irudiz.

KERMAN GARRALDA ZUBIMENDI

Jostun baten atelierraren pare, kazetariaren lantegia erredakzioa da. Gaur egun, erredakzio batek bestelako bulego baten itxura du, bere ordenagailu, telefono, inprimagailu eta gurgpil txikiak dituzte aulki ergonomikoekin. Baina ez dira txostenak egiten edo excel taulak osatzen edo; tira, baita ere, baina erredakzio baten jardun nagusia eduki periodistikoak ekoiztean datza, genero ezberdinetakoak eta dagokion ediziorako, izan digitala edo analogikoa.

Eduki periodistiko bat albiste bat izan daiteke, kronika bat, elkarrizketa bat edo analisi bat. GOIERRIKO HITZA-ren kasuan ekoitz daitezke *goierri.hitza.eus* edizio digitalarako edo paperezko ediziorako, egunkarirako. Edizio digitala asteko zazpi egunetan elikatzen da, ia urteko 365 egunetan



GOIERRIKO HITZAren
hiru lankide, Beasaingo
erredakzioan. Kerman Garralda

eta papera, berriz, asteen lau bider. Aurtent, XXI. publikazio urtean, 181 zerbaki argitaratu ditu GOIERRIKO HITZA-k.

Hori guztia edukiz betetzeko, GOIERRIKO HITZA-k hamabost laguneko lantaldea du, bi erredakziotan banatuta. Urretxuko erredakzioa txikiagoa da eta hiru erredaktorek bertatik egiten dute lan; Beasaingoan, erredakzio nagusian, beste hiru erredaktorez gain, hiru editore, bi diseinatzaile eta administrazio arloko kudeatzaileak, komertzialak eta sustapen arduradunak. Erredaktoreen artean, eskualdeko

23 herriei estaldura eskaintzen diete eta eurak dira egunerokoaren jarraipena egiten dutenak: suertatuko diren albisteen aurreikuspenak egin, lehen eskuko informazioa lortu, bildutakoa egiaztatu, egituratu eta orraztu, eta dagokion edizioaren bidez irakurleengaino bidaltzen dute. Editoreek hauen jarduna koordinatzen dute eta dena aurrekusi bezala doala kontrolatu. Dagokionean, zuzenketak ere egiten dituzte. Diseinatzaileek, berriz, erredaktoreek idatzitakoari egunkari formatua ematen diote, irakurlearentzat lan arinagoa izan dadin eta informazioa errazago barneratu dezaten. Komertzialak publikitatea erakartzen du, sustapenak hedabidearen eta harpidedunen arteko zubi lanak egiten ditu eta kudeatzailearen ardura da aurretik esandako alor guztiak era sinkronizatuan lanean aritzea, besteak beste. Erredakzioan topo egiten dute guztiak; hedabidearen bihotza da.

Asteburuak

Kazetariaren ikuspegitik, alde handia dago astebarrua edo aste burua izan. Ekitaldi gehienak asteburuan izaten dira eta, kasu hauetan, erredakziotik lan gutxiago egiten da. Kontrara, kaleko lana ugariagoa da. Gainera, teknologiaren aurrerapenei esker, erredakzioa edonora eraman daiteke eta munduko edozein txokotatik ekoitzi daitezke eduki periodistikoak webgunerako edo papererako.

Asteburuetakoa lan zama horren da handia, hara eta hona errazago ibiltzeko, zazpigarren erredaktore batek egiten duela lan igandeetan. Astelehentetik ostiralera, berriz, agendari lotutako ekintza gutxiago egoten da eta ekoizpen propioko eduki gehiago sortzeko aukera izaten da: ezkutuan dauden istorioak, elkarrizketak, erreportajeak... Hedabide interesgarri zein erabilgarria izateko agenda kutsuko, aktualitateari lotutako, azken orduko... eduki periodistikoak nahastu behar dira.

Komertzialak eta sustapeneko figura ere erredakziotik joan etorrian-ibiltzen dira. Bezeroekin bildu, berriak bilatu... Euren kasuan ere erredakzioa lana boroibiltzeko gunea da. ■

IRAETA tabakoak

☎ 943 72 04 70
 Legazpi kalea, 10
 ZUMARRAGA



**Autonomoak
 eta enpresak**
Laborala
Kontabilitatea
Fiskala
Juridikoa

Abokatua:
 Mila Sukia Galparsoro

www.ikm.net
 Mallutz industria gunea
 ORDIZIA
 Tel.: 943 88 21 06

VOLVO GARAJE MODERNO

**KAMIOI ETA AUTOBUS
 KONZESIONARIOA
 ETA ZERBITZUA**

N-I errepidea, 417 km (Olaberria)
 Tel: 943 888 600

GARAJE MODERNO

Inyelec

**AUTO ELEKTRIZITATEA
 AUTO KONPONKETA**

N-I errepidea, 417 km (Olaberria)
 Tel: 943 888 600



Tximela
Konfiantzazko Ekipoak

Makineria Alogera

Zorionak Hitza Zuen
20. Urteurrenean


tximela.com



GONZÁLEZ
Taller de enmarcación

Enmarkazio tailerra
Neurrira enmarkatutako ispiluak
Neurrira inprimatutako laminak:
argazki paperean, lienzoan eta
paper margotuan
Koadroak

Nekolalde, 22 - Beasain
Tel.: 943 882 388
gonzalezzenmarcacion@gmail.com



Ormaiztegi Udala

eskuragarri eskuragarri
App Store Google Play

ORMAIZTEGI APP

**ARANDIA
GARAJEA
MULTIMARKA**

ESEKIDURAK • PNEUMATIKOAK
BIRPROGRAMAZIOAK • POTENTZIA TXIPAK
GAS GLP INSTALATZAILA ZENTROA

www.arandiagarajea.com
N-1, z/g OLABERRIA ☎ 943 88 09 47

Pantailatik paperera, gustu guztiak asetzeko

**Hurrengo eguneko GOIERRIKO HITZA
20:00etarako bukatuta egoten da. Orduan
hasten dira errotatibak martxan. Inprintako
kideen ardura da egunkariak inprimitzea.**

KERMAN GARRALDA ZUBIMENDI

Arratsaldeko zazpiak inguruan hasten da mugimendua Bidasoa Inprimatzeko Zentroan. Orduan hasten dira iristen errotatibara eskualdeetako Hitza egunkarietako orriak, tartean, GOIERRIKO HITZA-koak. 18:00ak eta 20:00ak artean isten da paperezko edizioa, egunaren arabera, eta behin prest dagoenean Zestoako (Gipuzkoa) Arroa auzoan dagoen Bidasoa Inprintara bidaltzen da.

Orriak PDF formatuan iristen dira Zestoara, erabat digitalean. Egokitzen tekniko batzuk egin ostean, lehen inprimagailu batera bidaltzen dituzte orriak. Baina ez da ohiko inprimagailu bat, Joxean Etxeberria arduradunak azaldu du «gela ilun baten modukoa» dela lehen inprimagailua: iluntasuna baliatuta, laser bidez, orriak aluminiozko xafla batzuetan islatzen dira orriak. Ez da, baina, orri bat-xafla bat baliokidetasuna egiten; xafla bakoitzean lau orrialde datoz. Baina, kolore primario bakoitzak eta beltzak txapa bana behar dutenez, zortzi orriko egunkari bat koloretan inprimatzeko zortzi plantxa behar dira.

Plantxak tolestagarriak dira. Hala, arrabola batean kiribiltzen dituzte, bakoitzari dagokion tintarekin kontaktuan. Gainera, xaflak bata bestearen parean jartzen dituzte.

Behin prest daudenean, egunkari paper amaigabe bat arrabola gutzien tartetik pasatzen dute. «Tanpoi baten moduan funtzionatzen du. Xaflak, bira ematean, tinta hartzen du aurrea eta, gero, paperean inprimatzen du. Zigillo baten modukoa da», esan du Etxeberriak. «1a 600 urte pasa dira [Johannes] Gutenbergek inprinta asmatu zuenetik eta oinarria berdina da. Teknologia hobetu da». Esaterako, papera ziztu bizian pasatzen da arrabolen artetik. Minutu gutxiren buruan prest dituzte GOIERRIKO HITZA-ren ia 2.000 aleak; papera moztu, behar bezala tolestu eta paketatuta ere katean egiten dituzte, makinaren laguntzarekin.

Hogei langile aritzen dira Bidasoa inprimategian txanda ezberdinetan banatuta, eta egunkariak inprimatzeko prozesuan, zortzi bat langilek hartzen dute parte: aurreinpresio arduradunak, bi inpresorek, bobinetako arduradunak, zierrean dauden bi lagunak, mantenukoak eta bestelako lanak koordinatzen aritzen den Etxeberria bera. «Gauzak ondo baldin badoaz GOIERRIKO HITZA-ko aleak inprimatzeko ez ditugu hamabost minutu baino gehiago behar izaten», dio tailerreko arduradunak.

Tokiko egunkariak inprimatu ondoren, Berria eta Gara inprimatzen dituzte Bidasoan, eta langileek euren



Egunkariak, inprimaketa prozesuan. Kerman Garralda Zubimendi



Egunkariak, pilatuta, banaketari ekiteko prest. Kerman G. Z.

jarduna 03:00ak aldera bukatzen dute. «Lanak konplikatu egiten zaizkigu ostegunetan, herrialdetako Hitza-k ere bota behar izaten ditugulako eta gero Berria-n txertatu. Berdina gertatzen da egunkariok gehigarri bat kaleratzen duzuen bakoitzean. Horregatik da ga-

rrantzitsua guztia ondo koordinatzea. Ekipoa egitea da inportanteena», dio Etxeberriak. Kontuan izan behar da ostiraletan irakurleek jasotzen duten *Goiberri* astekaria errotatiban ez dela hemen inprimatzen, Oñatiko (Gipuzkoa) Gertu inprimategian baizik. ■

L I B U R U D E N D A

MUJIKA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

19
43

LASA Maxi Calligaris

HARATEGIA

Euskal Herria, 14 / Ordizia
T 943 880 073

Gabiriako Udala

943 88 07 34
gabiria.eus

borja de la cuesta

Kortina teknikoak
Alfonbrak (neurritara ere bai)
Etxeko arropak
Neurri berezietako izarak...

Tel.: 943 880 432
Plaza Nagusia, 4 ORDIZIA

FERRETERIA
 **Alonso**
 BURDINDEGIA

Isuses industriagunea, 1-2
ARAMA
 Tel. 943 88 11 32

Urdaneta, 4
ORDIZIA
 Tel. 943 80 50 74

www.ferreteriaalonso.com



Ataungo Udala

943180011
ataun.eus



943 72 13 03
ezkio.eus



**ZEGAMA
 UDALA**

943 80 11 15
www.zegama.eus



Egunkaria, bidelagun. Kerman Garralda Zubimendi

Katearen azken begia

Goierriko Hitza irakurleen eskuetaraino iristeko banatzaileak dira katearen azken begiak. Ordu txikietan hasten dute jarduna, harpideek esnatzerako izan ditzaten albisteak.

KERMAN GARRALDA ZUBIMENDI
 URRETXU

Maria Jesus Sasturainek beste inork baino lehenago hasten du eguna. 04:30ean ekiten dio lanari. Etxerainoko langilea da eta, besteak beste, GOIERRIKO HITZA harpidedunen etxeetaraino eramateko ardura du. Sasturain Urretxu eta Zumarragako periferiaz arduratzen da; beste lankide

batek egiten ditu erdiguneko etxeak; beste batek, Legazpiakoak... GOIERRIKO HITZA hamar banatzailearen artean eramaten dute ia 2.000 etxeetara.

Gainerako egunkariak baino lehenago iristen da Hitza inprentatik Urretxura. Sasturainek, adibidez, *Berria* ere banatzen du eta, ostiraletan *Goiberri* aldizkaria. Gainerako egunkarik etorri



Banatzaille batek erabiltzen dituen giltza kopurua. K. G. Z.

aurretik, soilik HITZA jasotzen duten etxeekin hasi da: autoa hartu, errepide bazterrean gelditu, dagozkion egunkariak dagozkion buzoietan sartu, eta berriaz kotxera. «Ibilbidea buruz dakit. 20 urte baino gehiago daramatzat banaketa lanetan», kontatu du. Senitarteko batek esan zion Euskaldunon Egunkaria banatzeko jende bila zebiltzala eta horrela hasi zen.

Denbora honetan, harpidedun batzuk ezagutzeko aukera ere izan du, naiz eta diren orduak izanda, tratu zuzenik ia ez duten. «Behin, lanean ari nintzela, irrist egin eta min hartu nuen. Gauean, mugikorra kotxean utzita... eskerrak harpideek lagundu zidaten», oroitu du. Orokorrean, lan bakartia da banatzaileena. Gaueko ordu txikietan inor gutxi dabil kalean. Sasturainek ez du irratirik edo musikarik eramaten gainean lanerako.

Lan gogorra izan daiteke banatzaileentzat. Zortzi orrialdeko egunkari soil batek ezer gutxi dirudi, baina egunkariak banatzen hasterakoan pilaz den orri kopuruak pisua hartzen du. Neguan, goizean goiz, hotza eguneroko oia izaten da eta, gaitzerdi euririk edo

elurrik egiten ez badu. «Neguan ondo prestatuta ibili behar izaten da: txanoa, eskularruak, oinetako onak... Autoan sartu irtenean ibili arren, aterkia ere erabiltzen dut». Dena behar da egunkaria txukun entregatzeko. «Bustiz gero, apurtzen bada... ez du balio. Badaezpada, beti ekartzen dizkirate pare bat egunkari gehiago». Plastikozko poltsak ere erabiltzen ditu egun euritsuetan, papera babesteko.

Azkeneko alea Sasturaintzat izaten da. «Asko gustatzen zait irakurtzea. Mugikorrean ere irakurtzen dut, baina papera gustatzen zait». Paperaren aldeko hautua geroz eta gutxiagok egiten dutela esan du, baina. «Ez da gazterik ikusten egunkariarekin», atsekabetu da. Helduagoen artean ere joera aldaketa ikusi du. «Asteburuetan gehiago irakurtzen da paperean».

Konturatzerako, heldu dira 07:00ak. Orduan banatzen ditu azkeneko egunkariak Sasturainek. Hitzak, asko jota, 12:00etarako entregatu behar dituzte, baina urretxuarrak nahiago du lehena egin. Harpidedunak esnatzerako, etxean bertan dute tokiko euskarazko informazioa. ■

Mstudio
arkitektura bulegoa

PROIEKTUAK ETA OBRA ZUZENDARITZA, ERREFORMAK, TASAZIOAK, PERITAZIOAK, JARDUERA LIZENTZIAK, ZIURTAGIRI ENERGETIKOAK, E.I.T.

Ordizia | T. 677 983 036
www.mstudio.eus



Zubillaga
OÑATI

Abereak hil eta prestatzea

Zatitze eta ontziratze zerbitzua

Banaketa

📍 Zubillaga auzoa 63, Oñati
☎ 943 78 21 93
📞 688 760 273
✉ bulegoa@zubillagahiltegia.com
🌐 zubillagahiltegia.com

Mirentxu

LIBURUDENDA
PAPERTEGIA
OPARIAK



Nafarroa Etorbidea 9 - BEASAIN
943 88 04 55 - 688 881 813
mirentxubeasain@gmail.com



**ARAMAKO
UDALA**

943 88 07 39
www.arama.eus

Xarmanki
edergintza

f i

☎ 943 72 25 13
Labeaga, 2 - URRETXU

IDIAZABAL

— 1111 —
ONDARRE
Patrimonio del queso
Queso de Idiazabal

ENEKO GOIBURU
☎ 689 192 508 • SEGURA

ITSASONDOKO UDALA

943 88 11 70
itsasondo.eus

PIZTU
elektrizitate

Prontxio 619 46 22 80 Ordizia

DISEINUA 20 URTEETAN ZEHAR

GOIERRIKO HITZA-k hainbat diseinu izan ditu 20 urte hauetan. Noizean behin, itsura aldatzea komeni da, behar berrietara egokitzeko eta irakurlea aspertu ez dadin. Egun berezietan, gehigarriak ekoizti izan ditu, dagokion gaia sakon landu ahal izateko; hauek ere diseinu berezia izaten dute.

ZALDIBIAR BAT EZBEHARREAN HIL DA HUESCAN
Txanaka haraguzko eta 1000 gramoko txanaka, lagunen lagun bat zela, zaldibiar bat hil da Huescan.

GOIERRIKO hitza
Ostirala 2007-11-09

HITZA ORAIN GERTUAGO

egin zaitzete orain. Hitzaren harpidedun' eta zure amesteko bidala eskura dezaituzte.

2007-11-09

GOIERRIKO HITZA

Inma Aranburu idiazabalarra izan da lehen emakumea Ataungo krosean

Arizte Krosean Inma Aranburu izan da lehen emakumea. Lehen postua eskuratu zuen. Denbora markarik ondu gabeko, baina proba ikusgarria egin dute.

Goierri Giro bizkainean ospatu dute urteurrena Amets Bizkai, Hitzarok eta Goierriko Hitzak.

Bizkaira Joan da Artzal Gaztak antolatutako Euskal Herriko gazta lehaketako txapela

Ipilabarriko Jon Etxebarriak eta Puy Arretiek irabazi dute Idiazabalako gazte txapelak. Bortolan, Idiazabalako gazte txapelaren irabazleak izan dira.

Itxura berrituta dator. Hartu HITZA

zer kontatu badagoetako Sareta, nabigatu eta parte hartu

2014-10-29

hitza
KARRERA • Andoni Aizpuru gurean Osoa eta geroa hitzatu...

GOIERRIKO HITZA

«Goierri idazle harrobi ona da, literaturan zer esana badu»

LIBURUA • 'Abiki sekretua' ipuin bilduma argitaratu du ordizarrak

EHUN URTE • Euskal Jaen urteurrean buru-belarri dabil lanean...

BERAZEN • Boluntario Egunaren oihua, behar duenari laguntzea

Galduta zeuden festak pizten Etxeberri

maizpide euskara BIZI! euskaraz

2004-10-05

GOIERRIKO hitza

Lazkaoko Udalak «gastuei eutsita» osatu du 5,7 milioi euroko aurrekontua

Ampe Ordiziak idertza izango da jakean etzi, salikaperako bururaren kontra

Jazpenari Feti jaiakiko giroa eta kontzertuen maila ikusita egotzora

XXII Mineralogia eta paleontologia saria

2010-11-05

HITZA

Goierritarrak onenen pare

Kirok Zaldibiako Mendri Lasterketako proba luzea Lara Estebanzen atleta legazpiarrek irabazi du

Autowag

2024-05-28

idiazabal gazta

ordizia
500k
azoka

2011-04-20

ETXEBIZITZA
hitza

Sektoreari eutsi nahian

LAZKAO ERAIKUNTZA BERRIAK
www.lamyfztkoa.com

ETXEBIZITZAK SALMENTAN
Informazio gehiago: 943 83 73 34

2011-11-10

ALTZAGAKO UDALA

943 88 37 37
altzaga.eus

tan dem

BRANDING eta DISEINUA

943 88 36 71
www.tandem.eus

Goierri ekologikoa

NLKAZARITZA EKOLOJIKOA

LURRARI EMANAK

2017-09-13

KORRIKA 2024
HITZA

EUSKARAZ HARRO

Euskararekin korrika

Martxoaren 23an
Basaeldia 10:30an

2024-03-13

Aixa
barazki eta fruta s.l.

T 943 72 60 09
M 665 734 396
Labeaga, 3-5 **URRET XU**

T 943 78 62 69
Buztinzuri kalea 6 behea
ANTZUOLA

Zegama-Aizkorri
HITZA

ZEGAMA BAKARRA BAITA

iztueta
HERNANDEZ BIZI GARA

2024-05-23

Euskal Eskola Publikoaren Jaia
HITZA

Publikoari hauspoa

ordizia
bizi herria

2024-05-30

etxear
margo industrialia

Ibaiondo Industrialdea, 2
Tel.: 943 161 282
Faxa: 943 160 953
ITSASONDO

Itxuraberritzeko urtea izan da 2024a

Urtea hastearekin batera azal argiago batekin ari da lanean goierri.hitza.eus webgunea, eta maiatzaz geroztik diseinu berria du egunkariak. Gaur egungo joeretarako egokitzeko aldaketak izan dira.

INAKI GURRUTXAGA

Aurrena webgunea izan zen, hurrena egunkaria. Edo beste modu batera esanda: edizio digitala lehenik, eta gero paperekoa. GOIERRIKO HITZA-k editatzen dituen bi euskarri nagusien itxuraberritze urtea izan da 2024.a. Ez da erraza gurea bezala erredakzio txiki batentzat gaurko eguneko joera eta bat-bateko aldaketetara azkar batean egokitzea, arrasto horiei jarraitzea. Baina etorri dira berrikuntzak azkenean.

Gipuzkoako eta Bizkaiko tokiko HITZA-k elkartu, eta 2022an eta 2023an egindako bilera sorta baten ondoren erabaki zen urtea hastearekin batera webgune berriak sareratu beharra

zeudela. Urtarrilaren zan izan zen hori. Eskualde bakoitzeko edizio digitalen arduradunak elkartu, zer berri eta zer mantendu erabaki, eta 2018az geroztik taldearentzat web garatzaile lanak egiten dituen Adibide Komunikazioa enpresari proposatu zitzaizkion.

Egitura bera ez, baina azalaren itxura eta albisteen fitxen itxura berri-zea izan zen proposamen nagusia. Webgune zuriagoa, argiagoa izatea zen nahia, begietara arin sartuko zena. Eskatu zitzaion hainbat ikono eta xehe-tasun beste modura batera kokatzeko, albiste nabarmenaren trama urdina aukeran uzteko, kazetarien sinadura ezkererako eramateko, argazkilariaren sinadura bistaratzeko garapen txukun bat egiteko. Eta bai, hilabetee-tako lanen ondoren, urteberritatik ari gara lanean gaur egun ikusten duzun webgunearekin.

Sakelakorako egitura lehenik

Orain dela urte gutxira arte, ordena-gailuko pantailan ikusteko webgunea nola egituratu zen pentsatu eta aztertu beharrekoa, baina azken hamarkadan joera hori irauli da. Dagoeneko ez du balio horrela pentsatzeak, ordena aldatu da. Webgunea sakelako telefonoan

nola bistaratuko den pentsatu behar da aurrena –webguneako ikustaldien hamarretik zazpi telefono bidez egiten dira–, eta behin hori zehazterakoan, ordenagailurako diseinura jotzea.

HITZA-ren webgunea ez da Goierriko Hedabideek kudeatzen duten atari digital bakarra. 2017an *goierri-kozerbitzuak.eus* webgunea berri-zea izan zen, 2020an *otamotz.eus* egokitu zen *goierri.hitza.eus* webgunearen sistemara, eta 2023an *goiberri.eus* eguneratu zen. Aurrerantzean ere izango da zer txukundua eta zer berri-zea.

Egunkariaren diseinua maiatzean

Baziren 10 urte GOIERRIKO HITZA-k ez zuela diseinua aldatzen, eta aurten, hogeigarrenaren urteurrenarekin batera egokitu da itxura aldatzea. Iaz *Berria* egunkariak egin zuen diseinua aldaketa Iruñeko Somos Errea estudioarekin elkarlanean, eta han egindako lana eta hura garatzeko egin ziren aldaketa tekniko guztiak gureganatuta –QuarkXpress programa alboratu, eta Sirius lan sistemara pasa– kaleratu genuen papereko edizio berri-zea maiatzaren 28an. Ez zen egun samurra izan. Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren ondoren ekarri beharra zegoen lau orritan



Zumarragako Udala

943 72 90 22
www.zumarraga.eus

Campagnole doktorea
kolegiatu zkia. 20.000.473

Intsausti doktorea
kolegiatu zkia. 20.001.002

Inplantologia
Hortz estetika
Ortodontzia

HAURREN HORTZAK
ZAINTEKO PROGRAMA PADI

Nafarroa Etorbidea, 8-1.-A Beasain
Tel.: 943 085 229 663 934 232

KIROPRAKTIKA

Ainhoa

Bizkarrezurraren zainketa

- Ziatika
- Lunbalgia
- Migrañak
- Bertigoak

Filipineta, 2 / ORDIZIA
T 620 183 731

Zazpi aurpegi berriekin eta mailari eusteko helburuarekin ekingo dio Armpo Ordiziak

ORDIZIA, 4



Gaintzan, Altzagan, Ormaiztegin eta Lazkao sanmigelak ospatuko dituzte

GOIERRI, 5

Txetxu Ormazabal zenari omenaldia egingo diote igandean

SEGURA, 3

Uanmendira joango dira eta omenaldia egingo diote. «Berrik emen zuzteko ari da orain omenaldia hasi joazten» dio Segura Klotz Elkartearen mezu taldeko Jose Mari Itagirek.



GARAZI ZABALETA
Kompositorea

«Unlike' berezia da, oso libreki idatzia dagoelako»

Kompositore beasaindararen Unlike lana lehen aldiz entzungo da gasur, Musikagileak zikloan. Bilboko Orkestra Sinfonikoak interpretatuko du.

BEASAIN, 2



Beasain, Lazkao, Ordizia

Josetxo Imaz proba igandean da, Lazkao hasi eta bukatuta

Lazkao, Ordizia, Beasain eta Lazkao arteko 10 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute korrikalariak.

Loinaz Agirre



KIROLA



Beasain, Gabiria, Legazpi

Bost bertsolari goierritar ariko dira Hondarribian eta Andoainen

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren final zortizietako bosgarren eta seigarren saioak dira.

Aimar Maiz



ORDIZIA



GOIERRIKO HITZAren 20. urteak ospatzera!

ZATZ GOIERRIKO HITZAren 20. urteurrena ospatzera!

GOIERRIKO HITZAk lehen zenbakia kaleratu zuen 20 urte beteiko dira urtarraren 30an. Esker modura, Lazkao festa bai antolatu du lantokideak urtarraren 30eko Martxoaren 30etik aurrera dagoen egunetako. Eguneko agitaraua, albisteak, Goierriko Hitza.



Asteburua Goierri zerk?

Sanmigelak Altzagan, Gaintzan, Lazkao eta Ormaiztegin, Pernu kaleko festa! Beasainen, Starburua Legorretan, zinema kartzelagoia... Ilus agenda albisteak.

Goierriko Hitza



goiberri Otamotz

goierriko zerbitzuak.eus

HITZA.eus



Etzerrean, irailaren 26ko GOIERRIKO HITZA-ren azala; eskubian, webgunearen azala joan den ostiralean. HITZA

ra –saikapen eta guzti–, eta astelehen hari egunean zeharreko gorabehera guztiak gehituta, ez ahaztekoa izan zen erredakzioarentzat eta teknikarientzat.

Cyan eta hori koloreak dira atal eta osagaien bereizgarri egunerokoaren kasuan, eta magenta kolorea gehigarri eta publikazio berezietan. Maketek egitura berria dute, malguagoak dira, eta zurtasun eta aire gehiago dute, baina era berean, diseinuarekin jokatzea gustatzen zaien kazetarientzat hertsia-

goak. GOIERRIKO HITZA-ren ibilbidean egin den laugarren diseinu aldaketa izan da aurtengoa.

Errea estudioko Javier Errearen hitzok baliagarriak izan daitezke diseinuaren garrantziaz jabetzeko: «Egunkari bat birdiseinatzea ez da polita jartzea. Tira, bai, polita jartzea ere bada. Baina ez hori bakarrik, eta ez hori batez ere (...). Egunkari batek birdiseinu baten ondoren hobera egitea da eska dakioken gutxienekoa». ■



www.euskaber.eus

ezarri
ezarri.com

Ametsak mosaikoz eginda daude

Zubierreka Industrialdea 58
20210 Lazkao (Gipuzkoa)
info@ezarri.com
943 164 800

Zuzenki

AHOLKULARITZA
fiskala • kontablea • juridikoa • laborala

Hirigoien, 7 LAZKAO

943 16 23 93 600 374 754

zuzenki@zuzenki.eu
www.zuzenki.aholkularitza.eus

URBIA AIZKORRI


IDIAZABAL

quesosaranburu.com
649 655 962 • 628 151 125
IDIAZABAL

gaur
logistika

Nazio eta Naziarteko garrarioak
Logistika eta Biltegitratzea

gaurlogistika.com
Guardi Ind. 32-33 • IDIAZABAL
943 88 89 38



Edizio digitalak, ahobiko tresnak prentsarentzat

Sekula izan duten irakurle kopuru handiena dute gaur egun Goierriko Hedabideek kudeatzen dituzten edizioek. Webguneetako irakurleek eragin dute igoera.

IÑAKI GURRUTXAGA


Aizu, enteratu al zara zer gertatu den Lazkaon? 'Bai, ikusi dut Hitza-n bai!' 'Eta zikoina batek Zumarragako Migel Lopez de Legazpiren eskulturaren habia egin duela?' 'Bai, bidali didate Otamotz-eko lotura Whatsappez!' Halako zenbat galdera-erantzun emango ote dira eguna joan eta eguna etorri goierritarren artean. Goierriko Hedabideek kudeatzen dituzten bi webgune nagusiak erreferente dira gaur egun tokiko informazioa euskaraz jaso nahi duten herritarrentzat.

Sortu eta lehen urtera jarri zuen martxan webgunea GOIERRIKO HI-

TZA-k. Hasiera haietan papereko edizioan argitaratutako albisteak biltzen zituen biharamunean. Bi hamarkada pasa dira harrezkero, eta orain, beste bat da kontua. Bidean urratsak egin dira, eta edizio jarraituak hartu dio lekua lehen informazio bulkatze huts bat zenari. 2015az geroztik, asteko zazpi egunetan eguneratzen dira *goierri.hitza.eus* eta *otamotz.eus* webguneak.

Hiru milioi orrialde inguru urtean

Azken hamar urteetako Interneteko trafikoaren bilakaera jasotzen duten diagramak argigarriak dira. Bi webguneek goranzko bilakaera izan dute



Sare sozialetako jarraitzaile eta lagunak

f **7.909** HITZA
1.674 Otamotz

X **4.171**

Instagram **3.088**

YouTube **3.770**

azken urteetan. Pandemia garaiko urteetan ikusitako orrien kopuruak bi milioiko langa gainditzea lortu zuen *goierri.hitza.eus*-en kasuan, eta laurahun milakoa *otamotz.eus*-en. Aurrenekoan zertxobait apaldu dira datuak, bigarrenak zazpiehun milako langa du gertu. Ez da samurra informazio jario etengabeari eta irakurleen fideltasunari eustea papereko publikazioetako (HITZA eta *GoiBerri*) lana edizio digitaleko lanarekin uztartzen dituen erredakzio txiki batentzat.

Hona iazko datu batzuk: Eguneroko jarioan eta *goiberri.eus* webgunera igozten diren artikulua batuta, 6,510 izan

ziren sareratutako albisteak; agendan 2.237 ekitaldi publikatu ziren; 318 bideo editatu ziren, eta 257 argazki galeria sortu. Denera 2.810.739 orrialde ikusi ziren, eta erabiltzaileak milioi erditik gora, asko eta asko egunerokoak.

Lau sare telematiko kudeatzen ditu lan-taldeak, eta lauretan jarraitzaile, lagun eta harpide kopuruak goraka jarraitzen du –ikus taula–. Beharrezkoak dira irakurleak webgunera erakartzeko, baina ez ezinbesteko, zuzenean nahiz bilatzaileetatik iristen baitira gehienak gurera. Datu baikorra da hori.

Doakotasunaren borroka

Horixe aurkia. Eta ifrentzua? Euskarazko komunikabideak gizarteari euskarazko informazioa emateko sortu ziren, eta horixe da oraindik ere haien izatearen *leit motiv*-a. HITZA-ren lantaldeak argi du egiteko horrekin jarraitu behar duela, baina aldi berean argi du Goierri duen komunitate digitalari ekarpen ekonomikoa eskatzea zilegi zaiola.

Interneta doan dela entzuten da behin eta berriro –beno, doan ez, telefonía konpainiei dirutza ordaintzen baitiegu urtean–, eta horixe da aho-biko ezpata idatzizko prentsarentzat. Albiste horien guztien, eta bideo eta argazki bilduma horien guztien atzean lantalde baten izerdia dago, eta irakurleak horretaz jabetzea premiazkoa da proiektu honek biziraun dezan. Hartu gogoan hori! Paperean nahiz digitalean, egin eta izan Hitzakide! ■

oreka
fisioterapia zentrua

Ainze Jauregi
Kol. zkoa. 179

Errehabilitazioa / Mantenu tratamendua
Masaje terapeutikoa / Kirol masajea
Lunbalgia eta ziatgalgia / Drenaje linfatikoa

Lardizabal 3, Behea SEGURA
T: 943 80 02 88 M: 646 32 94 79

Auzokide 95
KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA
1995ETIK GOIERRIN

943253706
656706652
Kol. Zbk. 858

Urdaneta 52, behea (Ordizia)
www.azokide.eu goierri@azokide.eu

ZEGAMAOKINDEGIA
Estuz egindako ogi naturala
zegamaokindegia.com

Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 **ZEGAMA**

Legorretako Udala

www.legorreta.eus

▶ LegorretAPP
f Legorretako Udala
t @ LegorretaUdala



Angel Elortzak utzitako argazki bat. Angel Elortza

Hitzek esan ezin dezaketena, argazki eta bideoetan

LAIDA GOIBURU

H itza izan da erreminta nagusia GOIERRIKO HITZA-ren ibilbidean, eta oraindik ere bada, baina ez bakarra. Informazioa ematerakoan, hitzek esan ezin dezaketena transmititu dezakete irudiek: poz, haserre, frustrazio edota konplizitate keinuak (bideoetan ahotsak), eguraldiari lotutako gertaeren edo istripuen ondorioak (uholdeak, ekaitzak, elurteak, suteak...) edo, besterik gabe, hitzez soilik deskriba ezin daitezkeen egoeren ikusgarritasuna (COVID 19aren garaian bizitako momentu arrotzak eta ordu-ra arte pentsaezinak), besteak beste. Emozioak eta momentuak izozteko gaitasunaz harago, irakurlea testuin-

guruan kokatzeko eta irakurtzen duen horren zentzua osatzeko balio dezakete ikus-entzunezkoek askotan. Irudiz osatzen baitugu gure imajinarioa.


GOIERRIKO HITZA-ren sorreratik argazkiak tresna baliagarriak izan dira informazioaren osagarri izateko. Jada digitalizatuta zegoen mundu horretan, kazetari bakoitzak bere lana osatzeko erabiltzen zuen argazki kamera, gaur egun bezalaxe. Geroago, beste elementu bat sartu zen jokoan: bideogintza. Baina masifikatu egin da jabetza eta erabilera; sorrerako garaian, irakurleek eskaneatuta bulegora eraman ohi zizuten argazkiak argitaratzeko; gaur egun, argazkiak egiteko gailurik -mugikor ia denek dituzte bideo eta argazki kamerak- gabeko herritarrik ia ez da, eta internet-arekin, horiek zabaltzeko bideak erraztu dira.

Argi dago, esaerak dioen bezala, askotan mila hitzek irudi batek baino bali handiagoa dutela. Goierriko Hitzak, argazkien garrantziaz eta hedapenez jabetuta, argazki lehiaketa jarri zuen martxan sorrerako urtean ez, baina hurrengoan. Harpidedunen eta irakurleen parte hartzeari esker, aurten 19. udako argazki lehiaketa egin da. Hitzek ez ezik, irudiek eraikitzen dute gure mundua.

Argazkilariak

20 urteotan hainbat argazkilari/bideolariren kolaborazio eta laguntza izan du HITZAK. Haien lanari eskerrak: Gotzon Aranburu, Angel Elortza, Pello Agirrezabal, Mikel De Las Heras eta Carlos Mediavilla, beste batzuen artean. ■

«Beti pentsatu dut tokiko informazioa dela kazetaritza inportanteena»



Gotzon Aranburu. «Oso gazterik hasi nintzen argazkiak egiten. Bideoak 30 bat urterekin, kazetari hasi ondoren. Analisia egiteko, zergatiak azaltzeko, hitza onena. Baina zerbait erakusteko, dela manifestazio bat edo bertso saio bat, bideoa hobeto. Kazetari onenak ere ezin du hi-

tzez azaldu irudiak eta audioak ematen duten informazioa. Elkarriketetan ere, idatzizko kazetariak editatu egiten du, keinuak, ahotsa... galdu egiten dira. Bideoan ez». GOIERRIKO HITZA-ko bideo kolaboratzailea da, hasiera-hasieratik. «Beti pentsatu izan dut tokiko informazioa dela kazetaritza inportanteena».

«Digitalera pausoa eman nuen eta hor jarraitzen dugu»

Carlos Mediavilla. «Urretxu-Zumarragako festetako garai bateko lehiaketak, Ordizia Rugby Elkarteko partidak, San Fermin jaietako irudiak...». Argazki mordo bat utzi du. Sanferminetako entzierroa da bere gai kuttuna, baina hortik harago doa bere argazkilaritza lana. Makina bat lehiaketa irabazi ditu eta erakusketak ere egin ditu:



paisaiak, kultur eta kirol ekitaldiak... Digitalean lan egiten duen arren, analogikoa du gustuko: «Digitalera pausoa eman nuen eta hor jarraitzen dugu. Edizioarekin abusatzen ez bada gauza politikak ateratzen dira, baina ni analogikoarekin geratzen naiz».

«Jendeak ikustean transmititzen dien zirrara da gehien pozten nauena»

Angel Elortza. Sorreratik ekitaldi ezberdinetako argazkiak utzi ditu. «Ormaiztegiko ekitaldi guztietako argazkiak egiten nituen eta kolaboratzen hasi nintzen, lana erraztu nahian. Egin egunkariarentzat berdin egin nuen, orduan jabetu nintzen egindako guztia herriko historiara pasatuko zela».



Kirola, festak, paisaiak... gai ezberdinak jorratzen ditu. 17 urterekin lehen kamera erosi zuen, pixkanaka zaletu, eta harrezkero –batez ere, 2004an digitala erosi zuenetik–, kamera eskuan ibiltzen da. «Errepikatuko ez diren uneak dira. Jendeak ikusten dituenean transmititzen dien zirrara da gehien pozten nauena».

«Zegama-Aizkorriko bilduma handia daukat, beti Andraitzeko lepoan»

Pello Agirrezabal. 1972an erosi zuen lehen kamera, Brinkolako kuadrillakoen artean. «1970. urtean hasi ginen 10 pezeta jaiero jartzen, eta horrela erosi genuen. Argazkigintzaren zaletasuna Don Abelino maisuaren bidez izan nuen. Eskolan eta mendian asko ateratzen zizkigun eta gero guri banatu». Digitalarekin, berriz, 2000. urtean hasi zen. Pertsonen argazkiak ateratzea gustatzen zaio gehien. «Argazki asko kirolaren ingurukoak ditut: atletismoa, txirrindularitza, Zegama-Aizkorriko bilduma handia eta ederra daukat, beti Andraitzeko lepoan». Argazkiak utzita kolaboratu du berak ere.



Hipermerkatua



EROSKI

Ordizia

Jai zoriontsuak guztioi!



GARBIGUNEAK
Urretxuko Garbigunea
 Tel 943 72 39 53
Beasaingo Garbigunea
 Tel 943 58 22 48
Ordiziako Garbigunea
 Tel 943 88 21 29

SASIETA
 MANKOMUNITATEA

BULEGOA
 Iturraldetxiki industrialdea,
 Salbatore auzoa, BEASAIN
 Tel 943 16 15 55
 info@sasieta.eus
www.sasieta.eus



Segurako Udala

Lardizabal, 5-20214 Segura
 943 80 10 06
 udala@segura.eus

www.segura.eus



KATTALIN
 ERRETEGIA

Haragiak eta arrainak parrillan

Katea auzoa (kiroldegia-aren ondoan) BEASAIN
 Tel.: 943 88 92 52
 asador@kattalin.com www.kattalin.com

GANBO-TXIKI
tailerrak



MEKANIKA
AROTEGIA
ETA
PAKETATZEAK

www.ganbotxiki.com

Zubi Erreka industrialdea 50 - LAZKAO
 665 731 205



'Bizi!' diskoa. Ariane Vierbücher

Aro bat musikatu duen diskoa

20 urteko ibilbidean, 'Bizi!' diskoa ere argitaratu da, GOIERRIKO HITZA-ren eta 'Goierritarra'-ren urteurrenen harira, Goierriko musikarien, trikitilarien eta bertsolarien laguntzarekin.

ARIANE VIERBÜCHER

Kantatzen hastera goaz, Goierriko historiak, batzuek gezurrak dira, besteak berri-egiak,...» Horela esaten du *Goierriko ditxa* kantaren lehen bertsoak, Iker Zubeldiak eta Iban Urdangarinek idatzi eta kantatu, eta Gari eta Iñaki trikitilariak musikatu zutena. Lerro hauek irakurtzen ari zareten askorentzat, ezaguna izango da abesti hau, ziur baietz, nahiz eta, ez jakin, akaso, GOIERRIKO HITZA egunkariaren bosgarren urteurrenaren eta *Goierritarra* aldizkariaren 20. urteurrenaren harira argitaratutako diskoaren lehenengo abestia izan zela.

Bizi! izenburupean argitaratu zen abesti hori jasotzen zuen diskoa, duela 15 urte. Momentu hartan erredakzio honetako langilea zen Arkaitz Apalategiren ideia eta indarra izan ziren hura kaleratzea, bera ibili baitzen, batik bat, zer egin horren koordinazio lanetan. «GOIERRIKO HITZA-ren bosgarren urteurrena eta *Goierritarra* aldizkariaren 20. urteurrenaren bueltan zerbait berezia egiteko gogoz genbiltzan: zer egin, zer antolatu, jendea nola erakarri,... horretan ari ginela, ideia ugari

izan genituen. Urteurrena ospatzeko festa handi bat egitea pentsatu genuen, baina horrez gain, aspalditik Goierriko musikariekin zerbait egiteko gogoz nengoela eta, hortik tiraka sortu zen diskoarena», kokatu du Apalategik berak. «Festetan, sagardotegietan,... bertsolari eta trikitilarien artean sortzen den harremana islatu nahi izan genuen, eta momentu horretan zeuden belaunaldi desberdinetako musikariak elkartu genituen. Garai hori grabatuta uzteko modua izan zen» deskribatu du garai hartako lana.

Esan eta egin. «Lan handia izan zen. Goierriko trikitilariak elkartu eta baikoitzak kanta bat grabatzea zen asmoa. Hitzak egiteko, eskualdeko bertsolarien laguntza izango zuten. Hainbeste jendek parte hartuko zuen disko bat grabatzea ez zen erraza izan. Makina bat bilera eta telefono dei egin izan ziren tartean. Dena den, esan beharra daukat, proposamena egin genien denek parte hartu zutela», gogoratu du Apalategik. Guztira 14 bikotek eta taldek parte hartu zuten, beste hainbeste bertsolariarekin batera.

Dena koordinatzeko hilabeteetako lanaren ondoren, iritsi zen estudioa sartzeko eguna. 2009 urteko ekainean eta uztailean grabatu zuten, Azkarate-



Katarain estudioan, diskoaren grabaketa egunetan. Arkaitz Apalategi

Javier Muñoa • ZERAIN
943 800 483 • 673 523 962

Goierrialdea
autobusak

Mota guztietako bidaiak
Tel.: 943885969
info@goierrialdea.eus
Gudugarreta auzoa BEASAIN
www.goierrialdea.eus

Bordaberri Artegia LAZKAO
659 043 773 / 646 697 250

www.sustraifrutaadenda.eus
Goierriko hainbat azoketan
DENDAK
LEGAZPI ORDIZIA OÑATI ARRASATE


Optika Mikel
 OPTIKARI OPTOMETRISTA
 AUDIOPROTESISTA
 DIPLOMADUNA
 UKIPEN LENTEEN EGOKIERA
 Kol. zkia. 9049 (A.N.A. 2179)
www.optikamikel.com
 ☎ 943 88 09 35
 Elozegi, 5 LAZKAO


OiARBIDE
 URDAITEGIA HARATEGIA
 Tel. 943 80 16 80
 Andraitz kalea, 3 ZEGAMA
 Tel. 943 88 27 47
 Kale Nagusia, 40 BEASAIN
 Tel. 943 72 08 59
 Legazpi kalea, 3 ZUMARRAGA


Urretxuko udala

www.urretxu.eus


GNK 1920
 Goierriko Nekazal Kooperatiba
www.gnk.eus
Denda
 Euskal Herria 8 - Ordizia
 T 943 88 04 15
Biltegia
 Iurreko indus. - Olaberria
 T 943 16 07 07



Gari eta Iñaki, abestiaren grabazioan. Arkaitz Apalategi

ko (Nafarroa) Katarain estudioan. Jonan Ordorikak egin zituen teknikari lanak eta Angel Katarainek, berriz, nahasketak.

«1.000 inguru kopia argitaratu genituen, eta esango nuke, den-denak saldu zirela», kontatu du Apalategik. GOIERRIKO HITZA-ren egoitzan oraindik gordeta dago kopia bat. 16 kanta biltzen ditu: Gari eta Iñakik, Elortza anaiak, Elustondo anai-arrebak, Aitor Sarriegik, Urretxu-Zumarragako bertso-eskolak, Dorronsoro eta Ezkerrak, Xapre eta Furrielak, Iker Zubeldiak, Iban Urdangarinek, Edurne Iturbek, Olarte anaiak, Lutxurdio eta Aitziberrrek, Dani eta Peiok, Josune eta Aitziber ahizpak, ... eta beste askok jarri zuten interesa eta inplikatu ziren. «Giro ona eta elkarlana izan ziren» borobildu du Apalategik.

GOIERRIKO HITZA egunkariaren bosgarren urteurrena eta *Goierriarra*-ren 20. urteurrena ospatzeko Lazkaon egin zen festan aurkeztu zuten diskoa.

Goierriko ditxa

Oso harrera ona izan zuen diskoak, baina bertan biltzen ziren abestietako bat izan zen erabateko sorpresa, diskoa

irekitzen duen abestia, hain zuzen ere, *Goierriko ditxa* izenburua duena. «Irratietan, herrietako jaietan, tabernetan, txosnetan,... toki askotan entzuten hasi zen, eta jende guztiak kantatzen zuen, gaur egun ere maiz oraindik. Ustekabea izan zen!», kontatu du Iker Zubeldiak abestiaren letraren egileetako batek.

Bederatzi bertsok osatzen dute, Goierriko herri desberdinei erreferentzia eginez. Hori zen diskorako abestia sortzeko baldintza bakanetakoa, Goierri oinarri izatea. Letraren sorkuntza nolakoa izan zen galdetuta «erabat bat-batekoa» izan zela esan du Zubeldiak. «Konpromisoa hartuta geunden, eta asteak joan asteak etorri, gainean genuen grabaketa eguna. Sagardotegian afaltzeko gelditu ginen lauok, eta horrela atera zen», gogoratu du Zubeldiak. Estudioan ere azkarrak izan ziren, «entsegu bat egin, ondoren estudioan lehenengoan jo, eta bale! Halakoxeak gara; gaur egun ere berdin egingo genukeen», erantzun du Zubeldiak.

Ondoren iritsi zen ezustekoa: «SGAE-tik ere deitu ziguten, kantua erregistratzeko, baina erabaki genuen, herriarena behar zuela, eta halaxe geratu zen». ■

Goierriko ditxa - Gari eta Iñaki



Iñaki Larrañaga, Gari Lizarraga, Iker Zubeldia eta Iban Urdangarin.
Arkaitz Apalategi

Gari Lizarraga: Soinura eta ahotsa

Iñaki Larrañaga: Panderoa eta ahotsa

Aitor Aiastui: Dultzaina

Iker Zubeldia: Ahotsa

Iban Urangarin: Ahotsa

Hitzak: Iker Zubeldia eta Iban Urdangarin

Urretxun lursailak merke duela hirurehun urte, aldatzen omen zituzten ardo kaja baten truke.

Zumarran Santa Lutzitan hamaika istilu gorri, diruarekin joan da kartera gabe etorri.

Barea eta Azea, Beasain eta Ordizi, bizitzeko alkar behar ta alkarrekin ezin bizi.

Seguran bada fedea prozesioa baduta, etsaiak ibiltzen dira santuk bizkarren hartuta.

Itsasondon oporretan joaten dira Urkira, ijitoak eguzkitan erretzen diren tokira.

Gehiago ere badira aipatu gabe tartean, eta gerta daitezela bizi garen bitartean, gure Goierri maitean.

Kantatzen hastera goaz Goierriko historiak, batzuek gezurrak dira, besteak berriz egia.

Behinala egin ziguten ataundar hauek Zegaman, egunez ahuntzak ikusi eta gauean eraman.

Majo damutu zitzaigun ahuntzak eramatea, geroztik bada Ataunen sasie eta otea.

Kontabilitatea
Xamar
Aholkularitza ekonomikoa eta fiskala
Enpresen eta autonomoen kontabilitatea eta gestioa
Komunitateen administrazioa
Higiezin aholkularitza

ekonomista
Kontzi Alonso Merchan
26.704 eln. pl.

adm administradores administratzaileak

Hirigoien 8A - LAZKAO T: 943 88 87 98
xamar@xamarasesoria.com
www.xamarasesoria.com

Gerriko
liburudenda

☎ 943 88 65 00 Faxa: 943 88 79 71
www.gerriko.eus
Elosegi 16 LAZKAO

ZUEKIN
KOMUNITATEAK

📍 Elosegi 20 · Lazkao · 943 88 65 53
☎ 621 27 15 70
@ zuekin@zuekin.eus

GERTUTASUNA
KOMUNIKAZIOA
KONPROMISOA
ETXEZ ETXEO ZERBITZUA

Gaztelu
Iturgintza
Berogintza

☎ 943 88 80 29 - 943 16 14 64
gaztelu.koop@gmail.com
Esteban Lasa, 7 BEASAIN



ARGILANA
IBABE MANTENUAK S.L.

Ur bero eta berogailuen
mantenu eta konponketak

Ibabe industrialdea, 2
LAZKAO
Tel.: 943 88 87 19

argilanacb@gmail.com



Nortek
Elektrizitate eta Sistemak S.L.

- Elektrizitatea
- Telekomunikazioak
- Informatika
- Eguzki energia

tlf. **943 088 003**
info@nortek.eus
www.nortek.eus

Areso 16
LAZKAO

OLANO
HARATEGIA

ETXeko HARAGIA

ODOLKIAK

**AURREZ PRESTATUTAKO
JANARIAK**

Andra Mari, 3 - BEASAIN
T: 943 880 778 F: 943 164 895
carniceriaolano@gmail.com



eiRe
ileapaindegia

943 54 08 45
Santa Magdalena, 2 - behea
LAZKAO

Elkarlana eta komunitatea ardatz

LAIDA BEGIRISTAIN APAOLATZA
MARIAN TOLEDO KORTABARRIA
MIKEL ARRIETA GARMENDIA

GOIERRIKO HEDABIDEAK-EKO ADMINISTRAZIO
KONTSEILUKO KIDEAK

Hogei urte pasa dira eguneroko tokiko informazioa euskaraz jorrazteko beharri erantzuteko GOIERRIKO HITZA sortu genuenetik. Elkarlanean sortu eta garatutako proiektua da: Goierritarra Kultur Elkarte, Zintzo-Mintzo Kultur Elkarte, Goierriko eragile ezberdinak biltzen dituen Goierriko Berriak Kultur Elkarte eta Berria Taldeko Bertako Hedabideak izan ziren proiektuaren bultzatzaileak. Abiatu zenean egitasmoak bazuen oinarri sendo bat, *Goierritarra* eta *Otamotz* aldizkariak aurretik egindako lana. Tokiko informazioa egunero euskaraz irakurri ahal izateko jauzi bat izan zen GOIERRIKO HITZA-ren sorrera.

Hogei urteko ibilbide oparoa egin du GOIERRIKO HITZA-k. Bertan aritu diren langileak eta inguruan sortutako komunitateak (harpidedunak, iragarleak, erakundeak....) ekarri dute proiektua honaino. Gainontzeko euskarazko medioen moduan, gorabeherak izan ditu GOIERRIKO HITZAK 20 urte hauetan, baina esan dezakegu herritarrak oraindik badue la tokiko informazio goserik eta horri erantzun behar diola HITZA-k datozen urteetan.

Joerak antzeman. Paperean oinarritutako proiektua izan zen hastapenean GOIERRIKO HITZA, atariko periodikoa. Egunerokoa sortu eta urtebetera, 2005ean, sortu zen webgunea egunkariaren edizio digital moduan. Bilakaera etengabea izan da urte hauetan guztietan, eta areagotu egin da azken urteetan: gizartea gero eta digitalagoa denez, osatu egin behar izan du bere eskaintza GOIERRIKO HITZAK.

Inoiz baino irakurle gehiago ditu GOIERRIKO HITZAK. Papereko egunkariak, CIES etxearen neurketaren arabera, 12.000 irakurle ditu egunero. Gure hiru webguneek (*goierri.hitza.eus*, *otamotz.eus* eta *goiberri.eus*) hiru milioi bisitari inguru izan zituzten 2023. urtean. Gero eta gehiago dira gure edukietara gailu digitalen bidez, batez ere telefonoa, heltzen diren irakurleak. Bide berri bat zabaldu da azken urteetan irakurle berriak GOIERRIKO HITZARA ekartzeko, beti ere paperean ditugun irakurle fidelak ahaztu gabe.

Bideragarritasun ekonomikoa. Eskaintza informatibo erakargarria eta osatua eskaintzeaz gain, proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzea da datozen urteetako erronka nagusia. Kontsumo eredu aldatu egin da eta sareetatik datoz kontsumitzaile berriak. Inoiz baino irakurle gehiago ditu GOIERRIKO HITZAK, baina papereko ohiko sarrerak (harpidetza eta publizitatea, adibidez), apaltzen ari dira. Horri aurre egiteko GOIERRIKO HITZAREN inguruan dugun komunitatea da gure indargunea. Egunero gurean informatzen diren kontsumitzaileak proiektuaren babesle bilakatzea da gure erronka, HITZAKIDEEN komunitatea indartzea, guztion artean proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzea.

Hala ere gauza jakina da euskarazko komunikabideak ez direla errentagarriak. Ataka honetan, ezinbestekoa da erakundeek, proiektua babesten jarraitzea. Eredu berriek, inbertsio berriak eskatzen dituzte eta horiei aurre egiteko ezinbestekoa da guztion laguntza.

Elkarlanaren indarra. Eragile ezberdinen arteko elkarlanetik abiatu zen GOIERRIKO HITZA orain 20 urte. Argi daukagu elkarlanean jarraitu behar dugula eta elkarlan hori indartu eta hedatu behar dugula eskualdeko komunikabide guztietara. Euskarazko komunikabideak indartzea funtsezkoa da EUSKARAREN normalizazioa lortzeko bidean. ■

Bi komunikabideen arteko harreman estua

**OLATZ ETXEBERRIA
ANAITZE JAUREGI**
SEGURA IRRATIKO KIDEAK

Segura Irratian, goizeko 10.00etatik 12:00etara Goizerokoa saioa egiten dugu Anaitze Jauregi eta Olatz Etxeberriak. Bertan Goierriko zein Euskal Herriko albisteak eta gaiak lantzen ditugu. Eta hainbat kolaboratzaileen parte hartzeak ere izaten ditugu, gai ezberdinak jorratuz. Hala nola, garai bateko kontuak, Txakurren heziketaren ingurukoak, moda kontuak, bidaiak, elikaduraren ingurukoak, sendabelarrak, Urdaibai Bird Centerretik hegaztien inguruak, musika, astrologia, Ordiziako azokako berriak, Goierri Irrati Telebistako berriak eta nola ez GOIERRIKO HITZAKO lagunen edukiak.

Aspalditik, *Goierriarra*-ren garaitik, Segura Irratiak harreman zuzena izan du komunikabide honekin. Lierni Elortza lankideak Mikel Albisu eta Loinaz Agirrerekin eta beste hainbat kiderekin hasitako harremana proiektuaren hasieran kokatzen du. Mota ezberdinetako elkarlana egin izan da urteetan, hainbat tarte entretenigarri eta goxagarri eskainiz Segura Irratiko uhinen bidez. Saio batzuk, asterokoak, beste batzuk puntualki egiten zirenak eta Bixi-Bixi saioan euskararen inguruko hainbat gai ere jorratu izan ziren. Erronka berezi bat ere bai tartean, erreportajeak idazten zituztenean idatzitakoaz haratago ahoz zerbait kontatzearena, hau da, idatzi ezin zen hori irratiz azaltzea, kontatzea, sentimenduak eta emozioak partekatuz.

Harreman estua izan du Segura Irratiak GOIERRIKO HITZAREKIN. Urte batzuetako etenaldi bat egon zen elkar truke horretan eta 2020. urtean pandemia bete-betean hasi ziren berriro ere kolaborazioak.

Hamabost egunetik behin telefonoz egiten ditugu elkartruke hauek. GOIERRIKO HITZAK aste horretan izango duenaren berri eskaintzen die gure entzuleei.

Kolaborazio tarte asteburuko erreposoarekin hasten da. Urte hauetan, kolaborazio tarte hauekin konturatu gara Goierriko eskualdean zenbat ekitaldi, festa, ekimen... antolatzen diren. Asteburuko erreposoa egin da, asteko edukiei erreparatzen diegu, astean zehar ere badagoelako zer kontatua. Ahaztu gabe ostiralak bereziak izaten direla, *Goiberri*-ren publikazioa izaten dutelako eta bertako edukiei ere aipua egiten diegulako.

Kolaborazio hauek beharrezkoak ikusten ditugu, komunikabide txikiak garrelako, bakoitza bere nortasun eta baliabide ezberdinekin. Elkarren laguntza eta elkarlana ezinbestekoak direlako, herritarrei ahalik eta komunikabiderik onenak eskaintzeko helburuarekin, izan idatziz, ikusiz edo entzunez.

Segi dezagun elkartruke hauekin, etorkizunari begira erronka txikiak jarritz, Goierriko herritarrei berriak zabalduz! Eskerririk asko eta Zorionak GOIERRIKO HITZARI. ■

**GOIERRIKO
ZURAK**
Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e.a



Ibabe, 26
LAZKAO
T 943 88 80 23

MATTIN
elektrizitatea

Etxeko instalakuntzak
Mantenimendua
LED argiteria

Jasogailu
zerbitzua

Tel.: 627 505 687
mattinelektrik@gmail.com

AHOLKULARITZA
943 16 02 98


LAMY
www.lamylazkao.com

HIGIEZIN AGENTZIA
943 88 37 39
Jose Lasa, 4 / LAZKAO

GaziGozo
janari denda



Elosegi kalea 5 behea | Lazkao
T. 943 106 500



araman
Sukaldeak, altzariak eta koltxoak

Aizkorri, 16 behea - Legazpi
Tel.: 676 795 472 - 676 795 479
www.araman.eus

LOTERIAK



Kale Nagusia, 1
Tel.: 943 73 12 70
LEGAZPI

Lanbroa **Lanbroa**
bi

Bidezahar, 7
Tel.: 943 03 75 27
20700 Zumarraga

Kale Nagusia, 24
Tel.: 943 73 17 98
20230 Legazpi

BELARDENDA

- Estetika
- Dietetika
- Produktu biologikoak



1988tik zuekin

Kerik onenak...
...Eta horretarako
behar direnak




**KALEKO
ESTANKOA**

Nagusia, 10 LEGAZPI
☎ 943 08 27 93



Hedabideen unibertsoan, izar bat

GOIERRIKO HITZAK beste hainbat senide ditu inguruko eskualdeetan. Bertako Hedabideetan biltzen dira batzuk, eta euskarazko hedabide gehienak Hekimen sarean.

KERMAN GARRALDA ZUBIMENDI

Goierriko Hedabideak taldearekin hainbat goierritarrek kolaboratzen dute. Bereziki, *Goiberri* aldizkarian hartzen du parte jendeak, horretarako aukera gehiago ematen dituen formatua delako. Egunkariaren kasuan ohikoagoa da kolaborazioak eskaintzea. Hala, GOIERRIKO HITZA marka indartzen da eta etxearen helburuak lortzeko urratsak ematen dira. Hau da, herritarrei euskaraz eta tokiko ikuspegiarekin informatuta emateko aukera berriak eta hobeak sortzen dira elkarlanari esker.

Kasu, hamabost egunetik behin Segura Irratiarekin kolaboratzen du GOIERRIKO HITZAK. Eskualdean jazotakoari erreposoa egiten diote bi aldeek. Garai batean, egunero egiten zen, gainera. Goierri Irrati Telebistak ere parte hartzen du kolaborazio katean. Are, eskualdeko egunkariak eta telebistak ere kolaboratu izan dute elkarrekin 20 urteko ibilbidean.

Gipuzkoako Hitza-rekin ere kolaboratzen du GOIERRIKO HITZAK. Lurraldeko Hitza guztien artean eta *Berria* egunkariaren laguntzarekin, astekari formatuan kaleratzen da, ostiraletan. Edizio digitalean, berriz, aste osoan zehar dosifikatzen dira edukiak.

Gipuzkoan, egun, lau Hitza daude: Bidasokoa, Irutxulokoa eta Oarsoaldekoa, Goierrikoarekin batera. Lehendabizikoek, Hondarribiko eta Irungo berri ematen dute; Irutxulokoek, Donostiakoa eta Oarsoaldekoek, Errenteria-Oreretakoa, Lezokoa, Oiartzungoa eta Pasaiakoa. Halere, egunkari formatuari eusten dion bakarra da GOIERRIKO HITZA. Gainerakoak astekariak dira paperean eta edizio jarraia dute sarean.

Gipuzkoako muga, Mutrikun, egon badago HITZA, baina Bizkaira begiratzen dute, *Lea-Artibai eta Busturialdeko Hitza*ren barruan daudelako. Horiek badute papereko egunkaria, asteko lau egunetan.



Irutxuloko
Hitza



Lea-Artibai eta
Mutrikuko
Hitza



Oarsoaldeko
Hitza



Hekimeneko urteroko batzarraren ondoren ateratako taldeko argazkia.

Iraganean ere izan dira HITZA gehiago: Tolosaldean, gure eskualde mugakidean, kolaborazioetatik harago joan ziren *Tolosaldeko Hitza*, *Galtzaundi* aldizkaria eta Txolarre irratia, eta *Ataria* sortu zuten 2013. urtean. Urola Kostan ere antzeko zerbait egin zuten orain gutxi, eta eskualdeko hainbat herri aldizkari eta *Urola Kostako Hitza* Guka markaren azpian batu dira.

Hekimen

Hitzak Bertako Hedabideak sarean elkartzen dira. Are, euskarazko hedabideek Hekimen elkartean egiten dute topo. Hekimen herri ekimeneko euskarazko komunikabideen elkarlana bideratzeko sortu zen, euskararen hiztun komunitateak behar duen eremu komunikatibo sendoa garatzeko helburuz. Hekimenen parte izateko euskara hutsez jardutea eta herri ekimenekoak izan behar da.

Desafioak ez dira makalak. Euskal Herri euskalduna nahi badugu, komunikabide esparru indartsua izatea ezin-

bestekoa da. Administrazioa, hezkuntza eta komunikabideak zutabe funtsezkoak dira hizkuntza garapenean. Baliabideei dagokionez, administrazioan eta hezkuntzan indar handia jarri da azken hamarkadatan, bai eta euskarazko hedabide publikoetan ere, baina ahalegina ez da parekoa izan herri ekimeneko euskarazko komunikabideen kasuan. Azken urteotan baliabide gehiago bideratzen ari dira gure sektorerara baina oraindik ere egiten duten ahalegina ez da nahikoa. Erronkak handiak dira eta baliabide garrantzitsuak behar dira komunikazioaren esparrua bizitzen ari den eraldaketa sakonari behar bezala erantzuteko.

GOIERRIKO HITZA Hekimenen parte denez, Euskal Hedabideen Behategiaren kide ere bada. Hekimenek eta Euskal Herriko lau unibertsitateak elkarlanean jarri dituen ikergunea da. ■

Z asesoria zumarraga aholkularitza

Aholkularitza fiskala, laborala eta kontablea

☎ 943 569 121 📠 644 022 026

www.asesoriazumarraga.com

Sekundino Esnaola, 16 A - Zumarraga
az@asesoriazumarraga.com

m h mujika harategia

zuekin 1963tik

hale Nagusia, 16 tel. 943 881 832 ORDIZIA
nafarroa etorbidea, 31 tel. 943 880 488 BEASAIN

autorrecambios
GOYERRI
Automobilien zerbitzu orokorrak

Antzizar 1, 20200 Beasain (Gipuzkoa)

☎ 943 884 550 📧 info@goyerrri.com
📞 690 948 999 🌐 www.goyerrri.com

Aranzazu Optika
AUDIFONOAK

Aranzazu Enparanza Arostegi
optiko optometrista - kontaktologoa

Kale Nagusia, 22 LEGAZPI
Tel.: 943 73 36 62
aranzazu.optika@gmail.com



**ZALDIBIAKO
UDALA**
zaldibia.eus

943 880357



NAPARRA
HARATEGIA

Festetako otorduak gure esku!

Urdaneta Kalea, 25
Ordizia

943 16 15 14 - 645 55 68 03

**ORDIZIAKO
HIZKUNTZA ESKOLA
OFIZIALA**

Frantsesa eta Ingelesa:
A1, A2, B1, B2.1, B2.2
eta C1* (Ingelesa bakarrik)

www.eoiordiziaheo.hezkuntza.net
E-posta: eoiordiziaheo@gmail.com
Telefonoa: 943 88 86 75





ERAIKI 

mecanizados, s.l.

**Argixao Poligonoa
1, 2, 3 Pabilioiak
7. Buzoia ZUMARRAGA**
Tel.: 943 72 51 89
Faxa: 943 72 08 70



Hitzaren 5. urteurrena ere Lazkaon ospatu zen. A. Apalategi

Ospa dezagun elkarrekin HITZAren 20. urteurrena

KERMAN GARRALDA ZUBIMENDI

Hogei urte ez direlako egunero betetzen, ospa dezagun elkarrekin. Zatoz GOIERRIKO HITZA-k larunbatean Lazkaon antolatu duen festara. Gonbidatuta zaudete Hitzakide guztiak, iragarle denak, kolaboratzaileak, komunitateko kideak, irakurleak...

Egun osoko egitaraua antolatu dugu horretarako, goizetik iluntzera arte. Goiz-eguerdi partean, erraldoiak eta buruhandiak izango dira, dultzaineroen musikarekin. Arratsaldean Beasaingo Bakuntza taldeak alaituko du kaleko giroa, eta herri kirolen txanda izango da ondoren. Eskualdeko zazpi herriren arteko lehia ikusi ahal izango da. Trikitilarien doinuek poteoa alaituko dute, eta eguna amaitzeko, afaria izango da Lazkaoko plazako frontoian. Herritar eta eragile guztiak gonbidatu nahi ditugu bertara.

GOIERRIKO HITZA-ren urteurreneko materiala erosteko eta harpidetza egiteko aukera izango duzue bertaratzen zaretenok. Informazio eta salmenta postu bat egongo da arratsaldean.

Tiketak salgai

Afarirako tiketak salgai daude Ordi-ziako Mujika liburu dendan, Lazkaoko Gerriko liburu dendan eta Urretxuko Kotoi paper dendan. GOIERRIKO HITZA-ren Beasaingo erredakzioan ere eros daitezke, Oriamendi kaleko 32. zenbakian.

Pikatzeko mokadutxo aurrena, patatak errioxar erara lehen platera, karrikerak saltsan bigarrena eta Iztuetak eskainitako postrea izango da menua, 25 euroan. Ura, sagardoa, ardoa eta kafea ere sartzen dira. Zatoz larunbatean Lazkaora GOIERRIKO HITZA-ren 20. urteurrena ospatzera! ■

GOIERRIKO HITZA, kirol eta kultur jardueren babesle

Eskualdeko kultur eta kirol jarduera askoren babesle izan da 20 urtean GOIERRIKO HITZA. Ehunmilak, Ordiziarrok eta Korosti Trail dira horietako batzuk.

TERE MADINABEITIA

Hogei urteko bidean, eskualdean presentzia handia izan du GOIERRIKO HITZA-k, ez bakarrik informatiboki, baita babesle gisa ere. Kultur eta kirol jarduera askotan lagundu du, eta lagun-

duko du. Bertsoak, musika, literatura... eta makina bat lasterketa babestu ditu.

Ehunmilak, hasieratik elkarrekin

Ehunmilak eta GOIERRIKO HITZAREN arteko elkarlana kirol probaren hasie-

HITZAREN arkua kirol proba askoren irteera eta helmuga puntuetan jarri izan da, **Aztiriako mendi lasterketan bezala.** Gotzon Aranburu



Zeraingo Udala

943 80 17 24
www.zerain.eus



KIDS&US
my English

Ingelesa urte 1etik aurrera

Matrikula Zabalik



MYTILOAKO VDALA

943 80 04 50
mutiloa.eus

**ESTANKOA
M. Eugenia
JANARI DENDA**

- ✘ Egunkariak eta aldizkariak
- ✘ Opariak
- ✘ Eskola Gaiak
- ✘ Mertzeria
- ✘ Janariak
- ✘ Tintoreritza
- ✘ Etxerako zerbitzua
- ✘ Nacex, Seur, DHL jasotze puntua

T943 88 77 24 M667 492 336
Muxika Egurastokia, 3 ORMAIZTEGI

MariaJe
okindegia



Zumalakarregi 3
943 089073
ORMAIZTEGI



arri
MEKANIZATUAK

30 urte

Salbatore auzoa, BEASAIN
www.arriweb.com



ratik sortu zela gogoratu du Mikel Valdivielso, eta ordutik «fidel» mantendu da. «Gugan konfiantza jarri zuen, guk berarengan ere bai, eta harremana oso estua eta ona izan da». Komunikat

bide honek kirol probaren informazioa zabaltzen egiten duen lana azpimarratu du, «inguruko kazetarien artean lanik handiena zuek egiten duzue... lehenengo urtetik egiten dituzuen gehigarriak, informazioa maiz-maiz, behar dugun aldiro hor egotea...».

Bestelako laguntza izaten dela ere gogoratu du: «Arku erabiltzen dugu, Kale Nagusiko sarreran, eta urtero sari batzuk eman izan dituzue...».

Elkarlanarekin segitzeko asmoa dutela ere esan du.

Ordiziarrock, «ia-ia kintoak»

Ordiziarrock jaialdia ere babesten du GOIERRIKO HITZA-k, «ia-ia kintoak gara», dio Urko Ruiz de Apodakak, «Ordiziarrocken historia osoan izan dugun bidelagun leialetako bat da». Hasiera-hasieratik emandako oihartzuna, «gurea bezalako herri mailako jaialdi edo eragile batek behar duen bultzada», alegia, «gure baliabideak oso murrizak izan dira, eta hazi garen arren, hasieratik izan dugun baliabide

mediatiko garrantzitsuenetakoa izan zarete».

«Gure ekintzak goierritarrei zuzenduak izan direlako beti, eta herritik eta herriarentzat mugitu garelako. Horrela ulertzen dugu GOIERRIKO HITZA ere, herriarentzat sortutako proiektua, herritarren beharrei erantzuten die-na. Horixe egiten saiatu gara gu kultur arloan, eta horixe eskaini digu Hitzak: herritar eta eragile gisa izan ditugun behar komunikatiboak asetzeari».

Korosti Trail, iritsi berria

Legazpin urriaren 13an estreinatutako Korosti Trail lasterketaren antolatzaileek ere GOIERRIKO HITZA-ra jo zuten babes eske, Mikel Bravok azaldu duenez: «zuengana jo genuen hasiera batean, lasterketaren lehen edizioa izanda, jendeak proba ezagutzeko beharra genuelako, batez ere, inguruko herrietako lasterketan apuntatzeko». Arku erabiliko dute helmugan eta zintak ibilbidea markatzeko. «Eskertu berterik ezin dugu egin zuen laguntza». ■

MARGOGAI.com

Pinturak
Tresnak
Dekorazioa,
industrialia
Makineria

Lazkaibar 1- 1 BEASAIN
Tel./faxa: 943 88 22 93
lazkaibar@margogai.com

DURAVAL

urrats
PODOLOGIA ZENTROA

MIREN ALVAREZ JUARISTI

943 72 52 23
labeaga 31 · URRETXU
www.urratspodologia.eu

Loinaz KAFEAK

ORAIN KAPSULETAN ERE BAI!

San Inazio, 14
Beasain
943 88 51 28

Zubierreka ind., 53
Lazkao

SUSTRAIAK SAKON ETORKIZUNERAKO PREST

SAN BENITO LAZKAOKO IKASTOLA
Euskadi Enparantza, s/n - 20210 Lazkao (Gipuzkoa)
943 880 800 - lazkao@ikastola.eus

www.sanbenitoikastola.eus

AUZOKI
KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOAK SL
Kol. Zenb. 599

Araba kalea, 1 ORDIZIA
auzoki@auzoki.eus
T. 943 087 486 M. 688 651 379

Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)

Elbarrena 72 - 4 pabiloia ZALDIBIA

ZUBIKOETA, S.L.
GASOLINDEGIA



**BEROGAILUENTZAT
GASOLEOA**
AUTO - GARBIKETA
ERREGAI MOTA GUZTIAK

Zubikoeta Industrialdea, 1 **ATAUN**
Tel.: 943 180 486 Faxa: 943 180 487
zubikoeta@zubikoeta.es

FILIP - TAXI
671 702 032

Ordizian eta Goierri osoan

- Sagardotegiak
- Upategiak
- Aireportuak
- Edozein motatako ekitaldiak



ARRAINKI

ARRAINAK ETA ITSASKIAK



Tel.: 943 160 331
Oriamendi, 24 **BEASAIN**

LONTXO
ARRANDEGIA



Martina Maiz, 3 • 20200 • Beasain
678 79 76 04

Whatsapp bidez eguneroko eskaintza
jaso dezakezu

**Etkez etxeko banaketa eguerdi
eta arratsaldean**

 lontxo2021@gmail.com

20. urteurrenean: GOIERRIKO HITZARI

AITOR IRASTORTZA

DOINUA: ZURE BULAR POLITAK
(XABIER LETEREN AMAREN BULARRA)

Hogei urte badira
jada herriz herri,
Ataun, Zerain, Segura,
edo Olaberri.
Gaurko eta atzoko,
zahar eta berri.
Zuk ematen didazu
inguruko berri.

Iritzi-plaza libre
denen ahotsezko,
informazio-sare,
egia funtsezko,
gertuko ikuspegi,
euskara hutsezko.
Zu zara adibide,
ez da ezinezko.

Haseran paperean
Interneten gero,
sareak erreminta,
kaleak bulego.
Ez da erraza baina
lortzen duzu, gero!
Azalez aldatzea
goizero goizero.

Batzuetan alai
eta atsegina,
besteetan triste,
gogorra, gordina.
Berri orok behar du
hitz-jario fina,
eman edo kontatu
ez baita berdina.

Luzea da daukazun
albiste bilduma...
Zein da barre txiki bat
atera dizuna,
zeinek eman ospea,
zeinek oihartzuna?
edo idazten gehien
kostatu zaizuna...

Gauza bat atsegin dut
zugandik, zehazki:
eguneko albiste
edota argazki,
formatu laburrean,
zortzi lerro, zazpi.
Asko baino hobe da
esatea aski,

Zorion agur eta
iritzi-zutabe,
asteroko hitz-truke,
Hitzakide sare,
herritarren gutunak
ere parez pare...
Ez zabilta besteei
hitzik eman gabe.

Hargatik zara noski
GOIERRIKO HITZA,
eskaintzen diguzuna
gaitegi anitza:
kultura, politika,
jaiak, hirigintza.
Eskerrak emateko
motiboz gabiltza.

Ezagutzen garela
hogei urte dira.
Gaztea zara eta
baduzu segida.
Lanean, orain arte
modura segi ba...
Asko gaukazulako
gertutik begira.

GIPUZKOA

Ekin.

–
*Gipuzkoa
oparagoa
izateko.*

Zaindu.

–
*Pertsona guztiak eta
horien ingurukoak
zaintzen dituen.*

Bizi.

–
*Ondo eta
duin bizi
daitezen.*



GIPUZKOA

Foru Aldundia

Egin maite duzuna, egin Goierri!



Gure lurraldea osatzen duten 19 udalerrietako pertsonen beharrei erantzuteko konpromisoa dugu Goiekin. Goierri eta bertakoen etorkizuna eta bizi kalitatea ziurtatuko duen ekosistema sozioekonomiko oparo, lehiakor eta balio erantsi handikoa bultzatu eta gauzatzeari dugu helburu.

Goierri maite dugulako!

EKIN eta
EGIN!



www.goierri.eus



 **Goieki**

— GOIERRIKO GARAPEN AGENTZIA —